PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ ADJUDIKATU BEHARREKO ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTU BEHAR DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK 4
I. KAPITULUA. Araubide juridikoa 4
1. klausula Araubide juridikoa 4
II. KAPITULUA. Kontratua 4
2. klausula Kontratuaren xedea eta beharra 4
3. klausula Balio zenbatetsia 5
4. klausula Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren prezioa 5
5. klausula Gauzatzeko epea eta lekua 5
6. klausula Kontratua luzatzea 5
7. klausula Gauzatzeko baldintza bereziak 6
8. klausula Prezioak berriskustea 6
III. KAPITULUA. Lizitatzailea 6
9. klausula Kontratatzeko gaitasuna 7
10. klausula Sailkapena eta kaudimena 7
11. klausula Kaudimena kanpoko baliabideekin integratzea 7
12. klausula Kaudimen-baldintzak zehaztea 8
13. klausula Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Kontratisten Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatzea 8
IV. KAPITULUA. Adjudikatzeko prozedura 8
14. klausula Prozedura 8
15. klausula Publizitatea 9
16. klausula Adjudikatzeko irizpideak 9
V. KAPITULUA. Kontratazio-organoa 9
17. klausula Kontratazio-organoa 9
18. klausula Kontratuaren arduraduna 10
VI. KAPITULUA. Bermea 10
19. klausula Behin betiko bermea 10
20. klausula Behin betiko bermea itzultzea eta kitatzea 10
II. TITULUA KONTRATUAREN LIZITAZIOA 11
I. KAPITULUA. Proposamenak 11
21. klausula Proposamenak aurkeztea 11
22. klausula Bitarteko elektronikoak 11
23. klausula Proposamenaren forma eta edukia 12
24. klausula Lizitatzailearen izaera konfidentzialeko dokumentuak eta datuak 14
25. klausula Aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioa, balorazioa eta proposamenak zabaltzea 14
II. KAPITULUA. Adjudikazio-proposamena, adjudikatzea, gauzatzea eta formalizatzea 14

26. klausula Adjudikazio-proposamenaren ondorioak Adjudikazioa ez egiteko edo kontratua ez gauzatzeko erabakia eta VISESAren adjudikazio-prozedurari uko egitea ... 14
27. klausula Kontratuaren adjudikazioa ... 15
28. klausula Kontratua gauzatzea eta formalizatzea ... 18
III. TITULUA. KONTRATUA GAUZATZEA ... 18
I. KAPITULUA. Kontratistaren eskubideak eta betebeharrak ... 18
Lehenengo atala. Kontratistari egin beharreko ordainketak ... 18
29. klausula Balorazioak eta ordainketak ... 18
Bigarren atala. Kontratistari egin beharreko eskakizunak ... 19
30. klausula Kontratistari eska dakizkiokeen betebeharrak, gastuak eta zergak ... 19
Hirugarren atala. Lan- eta gizarte-xedapenak eta gardentasun-xedapenak ... 20
31. klausula Lan-, gizarte- eta gardentasun-betebeharrak ... 20
32. klausula Lan-kontratuetako subrogazio-baldintzei buruzko informazioa ... 20
Laugarren atala. Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen babesa ... 21
33. klausula Konfidentzialtasun betebeharra ... 21
34. klausula Datu pertsonalen babesa ... 21
Bosgarren atala. Aseguruak eta kalteengatiko ardurak ... 24
35. klausula Aseguruak. ... 24
36. klausula Kalte-galerengatiko kontratistaren erantzukizuna ... 24
II. KAPITULUA. Lagapena eta azpikontratazioa. ... 25
37. klausula Kontratua lagatzea. ... 25
38. Klausula Azpikontratazioa. ... 25
III. KAPITULUA. Kontratua gauzatzea ... 26
Lehenengo atala. Arriskua eta mentura ... 26
39. klausula Arriskua eta mentura ... 26
Bigarren atala. Kontratua betetzea ... 26
40. klausula Lan-programa ... 27
41. klausula Lan akastunak edo gaizki egikarituak ... 27
42. klausula Akatsak konpontzea eta hutsuneak zuzentzea ... 27
43. klausula Obrak gauzatzean izandako desbideratzeengatiko kalte-ordainak eta proiektuaren akatsengatiko edo okerrengatiko erantzukizuna ... 27
44. klausula Epea betetzea eta kontratuaren betebeharrak ez betetzeagatiko zigorrak ... 28
Bosgarren atala. Kontratua aldatzea eta amaitzea ... 29
45. klausula Kontratua aldatzea ... 29
46. klausula Kontratua amaitzea ... 29
IV. KAPITULUA. Kontratua azkentzea. ... 29
Lehenengo atala. Kontratua suntsiaraztea ... 30
47. klausula Kontratua suntsiaraztzea ... 30

Bigarren atala. Zerbitzuak ematea 30

48. artikulua. Aurkezteko modua. 30

49. artikulua. Zerbitzuak ematea eta lanak entregatzea. 31

50. klausula Jasotzea eta likidatzea. 32

51. klausula Lanen jabetza. 33

Hirugarren atala. Bermealdia. 34

52. klausula Bermealdia 34

53. klausula Aseguruak 34

II. ERANSKINA. EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRAREN EREDUA 35
III. ERANSKINA. ABAL-EREDUKO KONTRATAZIO PROZEDURETAKO BERMEAREN EREDUA 35
IV. ERANSKINA. KONTRATAZIO PROZEDURETARAKO BERME EREDUA, KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRIAREN EREDUA. 37
V. ERANSKINA. ZIFRA EDO EHUNEKOEN ARABERA BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ESKAINTZA ..... **¡Error! Marcador no definido.**
VII. ERANSKINA. KAUDIMENA KANPOKO BITARTEKOEKIN INTEGRATZEKO KONPROMISO-EREDUA 40
VII. ERANSKINA.- BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO ETA GAUZATZEKO BALDINTZAK BETETZEKO KONPROMISOA ..... **¡Error! Marcador no definido.**
VIII. ERANSKINA. SUBROGAZIOAK ERAGITEN DIEN LANGILEEN KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO INFORMAZIOA, LAN-KOSTUEN EBALUAZIO ZEHATZA EGITEKO. INFORMAZIO HAU EMATEN DA SPKLren 130. ARTIKULUAN AURREIKUSITAKOA BETEZ 43
IX. ERANSKINA.- PLANTILLAN DESGAITASUNA DUTEN LANGILEAK IZATERA BEHARTUTA DAUDEN ENPRESEI BURUZKO ADIERAZPENA 44

PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ ADJUDIKATU BEHARREKO ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTU BEHAR DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA. Araubide juridikoa

1. klausula Araubide juridikoa

Kontratu honek izaera pribatua da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 8/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 26. artikuluan xedatutakoa betez (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da). Aldeak agiri honetan eta dagokion preskripzio tekniko partikularren agirian ezarritakoaren menpe geratzen dira berariaz.

Kontratuak izaera pribatua du eta jarraian zehaztutako arauek eta dokumentuek arautzen dute:

a) Klausula partikularren agiri honetan jasotako klausulak, honen parte den karatulako zehaztapenen arabera.
b) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 8/2017 Legea (SPKL), kontratua adjudikatzeko prozeduraren deialdia argitaratzean indarrean dagoen bertsioan.
c) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, SPKLn aurreikusitakoaren aurka egiten ez duen heinean.
d) Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, SPKLn aurreikusitakoaren aurka egiten ez duen heinean.
e) Kontratu izaera duten dokumentuak.
f) Kontratazioa arautzen duten beste xedapen guztiak, bai estatuan, bai Euskadiko Autonomia Erkidegoan, baldin eta horren esparruan aplikagarriak badira.

Hala ere, aurretik aipatutako lege- eta erregelamendu-arauak SPKLren aurka egiten ez duten heinean aplikatuko dira.

Osagarri gisa, zuzenbide pribatuko gainerako arauak aplikatuko dira.

Bi agiriek kontratu izaera dute; hortaz, sinatu beharko dira, adjudikazioduna ados dagoela egiaztatzeko, kontratua formalizatzeko egintzan. Agiri hau eta kontratu-dokumentuetako bat ez badatoz bat, agiri hau gailenduko da.

Kontratuaren klausulak, gainerako kontratu-dokumentuak eta hitzartutakoa betetzeko aplikatu beharreko jarraibideak edo araudia ez ezagutzeak ez du adjudikazioduna klausula horiek betetzeko betebeharretik salbuesten. Eskaintza aurkezteak lizitatzailearen baldintzarik gabe onartzea dakar, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

II. KAPITULUA. Kontratua

2. klausula Kontratuaren xedea eta beharra

Agiri honek aipatzen duen kontratuaren xedea da I. eranskineko 1. atalean deskribatutako eta preskripzio tekniko partikularren agirian zehaztutako zerbitzuak ematea. Agiri horretan zehazten dira aintzat hartu beharreko faktore guztiak eta, hala badagokio, izapidetu daitezkeen aldaketak. Atal berean, kontratuaren bidez ase behar diren beharrak aipatzen dira.

Hala adierazten bada I. eranskineko 1. atalean, loteetan lizitatzeko aukera egongo da. Horien adjudikaziorako mugak I. eranskinean zehazten dira, hala badagokio, bertan adierazitako irizpideen arabera. Agiri honetan kontratuari eta adjudikazioduna egindako erreferentziak kontratuaren xedea banatzen den lote bakoitzari egin zaizkiola ulertuko da, hala badagokio.

SPKLren 99.3 artikuluan xedatutakoa betez, kontratazio-organoak kontratuaren xedea lotetan ez banatzeko aukera izango du, baldin eta behar bezala justifikatu beharko diren baliozko arrazoiak badaude. Lotetan ez banatzeko justifikazioa agiri honetako **I. eranskineko 1. atalean** adieraziko da.

1. atalean hala adierazten bada, partaidetza gordeta geratuko da bertan adierazitako erakundeentzat, kontratu osoarentzat edo loteka, **I. eranskinean** adierazitakoa betez.

3. klausula Balio zenbatetsia

SPKLren 101. artikuluan jasotakoa betez, agiri honen **I. eranskineko 4. atalean** adierazten da kontratu honen balio zenbatetsia.

I. eranskineko 4. atalean azaltzen da kontratazio-organoak balio zenbatetsia kalkulatzeko zer metodo erabili duen.

4. klausula Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren prezioa

Kontratuek beti prezio zehatza edukiko dute, eta eurotan adierazi beharko da.

Agiri honen I. eranskineko 5. atalean adierazten da kontratuko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua zenbatekoa. SPKLren 100. artikuluan eta 309. artikuluan jasotakoarekin bat egin da. Kalkuluan mota guztietako zergak sartu dira.

Edonola ere, beste partida batean Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) adieraziko da.

Kontratuaren prezioa adjudikaziotik ateratzen dena izango da. Kontratuaren prezioan aplikagarri diren edozein motako zergak, tasak eta kanonak sartuta daudela ulertuko da, eta baita baldintzen agiri honetan barneratzen diren betebeharrak betetzearen ondorioz adjudikaziodunak ordaintzeko sortzen diren gastu guztiak ere.

4.1 Honenbesteko prezio bidez zehaztu beharreko kontratua

Prezioa honenbesteko prezioen bitartez zehazten den kontratuetan, kontratuaren prezioa izango da adjudikaziodunak eskainitakoa, eta inoiz ezingo du I. eranskineko 5. atalean azaltzen den lizitaziorako oinarrizko aurrekontua gainditu (BEZik gabe).

4.2 Prezio unitario bidez zehaztu beharreko kontratua

Prezioa prestazioan eskainiko diren osagaiei, gauzatze- edo prestazio-unitateei edo denbora-unitateei dagozkien prezio unitarioen bidez zehazten den kontratuetan, honi jarraituko zaio:

a) Argi zehaztu bada zenbat unitatek osatzen duten xedea, hauxe izango da prezioa: enpresa adjudikaziodunak eskainitako unitate-prezioa bider unitate kopurua.

b) Ez bada zehatz definitu zenbat unitatek osatzen duten xedea:

i) Adjudikaziodunak eskainitakoa izango da unitate bakoitzaren prezioa.

ii) Kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea ezarriko da. Aurrekontu hori lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren berdina izan daiteke, edo, baldin eta adjudikaziodunak ez badu lizitazio-prezio unitarioen murrizketarik eskaini, kontratazio-organoak zehaztutako proportzioan murriztu ahal izango da.

5. klausula Gauzatzeko epea eta lekua

Iraupen-epea **I. eranskinaren 8. atalean** zehaztutakoa izango da. Epe hori kontratua formalizatzen denetik edo kontratu-dokumentuan adostutako egunetik hasiko da kontatzen.

Kontratua agiri honetako **I. eranskineko 8. atalean** adierazitako tokian gauzatuko da.

6. klausula Kontratua luzatzea

Kontratazio-organoak kontratua luzatu ahalko du, eta kontratistak nahitaez bete beharko du, baldin eta kontratuaren iraupena amaitu baino bi hilabete lehenago jakinarazten bada. Bi hilabetetik beherako kontratuen kasuan ez da aurrez abisurik egin beharko, SPKLren 29. artikuluaren 2. atalean ezarritakoa betez.

Inola ere ezingo da luzapenik egin aldeen isilbidezko adostasunaren bidez.

SPKLren 29. artikuluaren 2. atalean ezarritako kontratu-luzapena ez da derrigorrezkoa izango kontratistarentzat, kontratuan SPKLren 198.6 artikuluan zehazten diren baliogabetzeko arrazoia ematen denean: VISESAk prezioa sei hilabete hilabetetik gorako atzerapenarekin ordaindu izana.

Hasiera batean eratutako behin betiko bermea luzapen-aldiari aplikatu ahal izango zaio, haren zenbatekoa berriro zehaztu beharrik gabe, salbu eta luzapenarekin batera kontratua aldatzea adosten ez bada.

Agiri honen I. eranskineko 8. atalean aurreikusten da kontratu hau luzatzeko edo ez luzatzeko aukera.

Edonola ere, SPKLren 29.4 artikulua betez, kontratu bat amaitzean kontratistak burutu beharreko prestazioak jarraituko dituela bermatzen duen kontratu berririk formalizatu ez bada adjudikazio-prozeduran gertatu diren eta kontratazio-organoak aurreikus ezin ditzakeen gertakariek sortutako intzidentzien ondorioz, eta prestazioa ez eteteko interes publikoko arrazoiak badaude, jatorrizko kontratua luzatu ahal izango da, kontratu berria gauzatzen hasten den arte, eta, edonola ere, bederatzi hilabeteko epean gehienez. Kontratuaren gainontzeko baldintzak bere horretan mantenduko dira, betiere kontratu berriaren lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratuaren amaiera-data baino hiru hilabete lehenago argitaratu bada.

Kasu horretan, luzapena ezin da aurreikusi, ez dagoelako kontratazio-organoaren nahiaren mende; horregatik, balio zenbatetsia zehazterakoan ez da aintzat hartuko, eta ez da beharrezkoa izango aurrez abisua egitea.

Luzapenak kontratua amaitu aurretik onetsi behar dira.

7. klausula Gauzatzeko baldintza bereziak

Kontratazio-organoek baldintza bereziak jarri ahalko dituzte, baldin eta kontratuaren xedearekin lotuta badaude, SPKLaren 145. artikuluan ezartzen denaren ildotik, ez badira zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak eta erkidegoko zuzenbidearekin bateragarriak badira.

Kontratu hau gauzatzeko baldintza bereziak agiri honen I. eranskineko 20. atalean zehazten dira.

Aurrekoez gain, orokorrean, honako gauzatze-baldintza bereziak ezartzen dira:

a) Legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak betetzea, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.
b) Kontratuari esleitutako langileen lan-baldintzei buruzko informazioa emateko betebeharra betetzea.
c) Kontratua betearazten den bitartean, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzea, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.
d) Kontratua gauzatzetik eratorritako datu guztiei erakunde-gardentasuna ematea.
e) Datuen babesari buruzko araudi nazionala eta Europar Batasuneko araudia betetzea. Enpresa adjudikaziodunak aitorpena aurkezteko beharra izango du, zerbitzariak non egongo diren eta zerbitzari horiei lotutako zerbitzuak non emango diren zehazteko. Horrez gain, emandako datuen edozein aldaketa jakinarazteko betebeharra izango du. Bestalde, zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko asmoa duten adierazi beharko du; hala bada, azpikontratisten izena eta profil profesionala adierazi beharko du.

Gauzatzeko baldintza bereziak betetzen ez badira, agiri honen **I. eranskineko 28. atalean** zehapenak ezarriko dira edo baldintza hauek funtsezko kontratu-betebehartzat hartuko dira SPKLren 211. artikuluaren f) letran aipatzen diren ondorioetarako.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi guztiak kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratista guztiei ere eskatu ahal izango zaie.

8. klausula Prezioak berriskustea

Prezioak berrikustean, agiri honen **I. eranskineko 6. atalean** zehaztutakoa bete beharko da, hori guztia SPKLren 103. artikuluarekin bat etorriz.

III. KAPITULUA. Lizitatzailea

9. klausula Kontratatzeko gaitasuna

Kontratu honen adjudikazioan Espainiako edo atzerriko pertsona naturalek edo juridikoek parte har dezakete, beren izenean edo aldi baterako enpresa-elkartearen izenean, baldin eta jarduteko ahalmen osoa, kontratatzeko debekurik eza eta egiaztatutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa badituzte, edo behar bezala sailkatuta badaude, agiri honen I. eranskineko 11. atalean xedatutakoa betez.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, haien osaera aldatzeko eta lizitazioan zehar eman aldaketak egiteko, 69. artikuluaren 8 atalean eta hurrengoetan ezarritakoari men egin beharko zaio.

Enpresa-fusio batean sozietate kontratistak parte hartzen badu, indarrean dagoen kontratuarekin jarraituko du erakunde xurgatzailearekin edo bat-egitetik eratorritakoarekin, eta hura subrogatuta geratuko da haren ondoriozko eskubide eta betebehar guztietan. Halaber, enpresen edo enpresa horien jarduera-adarren bereizketa, ekarpena edo transmisioa gertatzen bada, kontratua esleitzen zaion enpresarekin jarraituko da kontratua, zeina subrogatua geratuko den horretatik eratorritako eskubideetan eta betebeharretan, baldin eta jarduteko ahalmen osoa, kontratatzeko debekurik eza eta adjudikazioa adosteko eskatutako kaudimena edo eragiketa horien onuradun diren sozietateek eta ondarea datorren sozietateak, enpresak edo adar bereiziak (bizirik irauten badute) erantzukizun solidarioa hartzea kontratua gauzatzeko. Subrogazioa ezin bada egin kontratua esleitu zaion erakundeak beharrezko kaudimen-baldintzak ez betetzeagatik, kontratua suntsiaraziko da, eta adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela ulertuko da ondorio guztietarako.

Aurreko xedeetarako, enpresak kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio gertatutako egoera.

Pertsona juridikoei kontratu bat adjudikatzeko, kontratuaren zerbitzuak kontratuaren berezko helburu, xede edo jarduera esparruaren parte izan beharko dira, beren sortze-arau edo Estatutuen arabera.

Halaber, kontratistek, hala badagokio, kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzua emateko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, agiriaren **I. eranskinaren 13. atalean** ezarritakoa betez.

Europako Erkidegoko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresei eta Erkidegoz kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

10. klausula Sailkapena eta kaudimena

SPKLren 74. artikuluarekin bat etorriz, sektore publikoarekin kontratuak egiteko, enpresaburuek kontratazio-organoak ezartzen dituen gutxieneko kaudimen ekonomiko eta finantzario, profesional edo teknikoko baldintzak dituztela akreditatu beharko dute. Baldintza hori sailkapen-baldintzaren ordez aldatu ahalko da.

Zerbitzu-kontratuetarako ez da enpresaburuaren kaudimena eskatu beharko. **I. eranskineko 11. atalean**, kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta kaudimen tekniko eta profesionaleko gutxieneko irizpideak eta betekizunak ezarriko dira, bai Legearen 87. eta 90. artikuluetan aurreikusitako baldintzetan, bai eska daitekeen sailkapen-talde edo -azpitaldearen eta gutxieneko kategoriaren baldintzetan, betiere kontratuaren xedea indarrean dagoen sailkapen-talde edo -azpitalderen baten sailkapen-esparruan sartuta badago; horretarako, kontratuaren CPV kodea hartuko da kontuan.

Beraz, enpresaburuak bere kaudimena akreditatu ahal izango du, kontratuari dagozkion sailkapen-talde edo -azpitaldeko sailkapenaren bidez edo **I. eranskineko 11. atalean** zehaztutako kaudimen-betekizun espezifikoak betetzen dituela egiaztatuz.

Era berean, SPKLren 92. artikuluak xedatzen du erregelamendu bidez salbuetsi ahal izango dela kaudimen ekonomiko eta finantzarioa edo kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko eskakizuna, muga jakin bat gainditzen ez duten kontratuen kasuan.

11. klausula Kaudimena kanpoko baliabideekin integratzea

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena akreditatzeko, enpresaburuak beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango du, haiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta frogatzen

badu kontratua gauzatzen den bitartean kaudimen eta baliabide horiek benetan izango dituela, eta baliatzen duen erakundeak kontratatzeko debekurik ez duela.

Baldintza berberetan, SPKLren 69. artikuluan aipatzen diren aldi baterako elkarteetan elkartuta aurkezten diren enpresaburuek aldi baterako elkartearekin zerikusirik ez duten gaitasunetara jo ahal izango dute.

Beraz, lizitatzaileek akreditatu ahal izango dituzte kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko betekizun espezifikoak, **I. eranskineko 11. atalean** jasotakoak, beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarrituta.

Sailkapena falta bada edo nahikoa ez bada, ezin izango da kaudimena kanpoko baliabideekin integratuz ordezkatu.

SPKLren 75.1 artikuluarekin bat etorriz, 90.1 e) artikuluan adierazten diren ikasketa- eta lanbide-tituluei buruzko irizpideei edo dagokion lanbide-esperientziari dagokienez, enpresek beste erakunde batzuen gaitasunetara jo ahal izango dute, baldin eta erakunde horiek gaitasun horiek beharrezkoak dituzten zerbitzuak emango badituzte.

Zerbitzu-kontratuetan, SPKLren 75.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, botere adjudikatzaileek eskatu ahal izango dute zati edo lan jakin batzuk, haien izaera berezia kontuan hartuta, lizitatzaileak berak zuzenean gauzatu ditzala, edo, enpresa-elkarte batek aurkeztutako eskaintzaren kasuan, elkarte horretako parte-hartzaile batek, betiere agirian hala aurreikusi bada. Aukera hori **I. eranskineko 23. atalean** araututa dago.

12. klausula Kaudimen-baldintzak zehaztea

Zerbitzu-kontratuetan, pertsona juridikoei eskatu ahal izango zaie prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-kuantifikazioa zehazteko, SPKLren 76.1 artikuluaren arabera.

Era beran, SPKLren 76. artikuluko 2. atalaren arabera, kontratazio-organoek lizitatzaileei eskatu ahal izango diete, beren kaudimena edo, hala badagokio, sailkapena akreditatzeaz gain, konpromisoa har dezatela kontratua gauzatzeko behar beste giza baliabide edo baliabide material erabiltzeko edo atxikitzeko. Konpromiso horiek funtsezko kontratu-betebeharrak dira 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, edo zigorrak ezar daitezke 192.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, adjudikaziodunak betetzen ez baditu.

Agiri honetako I. eranskineko 12. atalean ezartzen da kontratua gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta kualifikazioa eskatuko direla, bai eta kontratua gauzatzeko giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa ere.

13. klausula Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Kontratisten Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatzea

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzio-ziurtagiriak egiaztatuko ditu, bertan adierazitakoaren arabera eta kontrako frogarik ezean, enpresaburuaren gaitasun-baldintzak bere nortasunari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, lanbide-gaikuntzari edo enpresa-gaitasunari, ekonomia- eta finantza-kaudimenari eta gaitasun tekniko edo profesionalari, sailkapenari eta inskribatutako gainerako inguruabarrei dagokienez, bai eta kontratatzeko debekuak dauden edo ez ere.

Era berean, Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialeko inskripzioak aurreko paragrafoan jasotako inguruabar berberak akreditatuko ditu.

IV. KAPITULUA. Adjudikatzeko prozedura

14. klausula Prozedura

Kontratua prozedura ireki bidez adjudikatuko da, SPKLren 131.2 eta 156. artikuluetan xedatutakoa betez, eta hori egingo da adjudikazio-irizpide bakarra edo hainbat adjudikazio-irizpide aintzat hartuta, agiri honen **I. eranskinaren 10. atalean** xedatutakoa betez eta lege-testu horretako baldintzen eta betekizunen arabera, SPKLren 145. eta 146. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

15. klausula Publizitatea

Kontratuaren lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean baino ez da argitaratuko. VISESA kontratatzailearen profilera sartzeko VISESAren webgunearen bidez egingo da: www.visesa.eus.

SPKLren 19. artikuluaren eta hurrengoetan xedatutakoa batez, kontratua erregulazio harmonizatuaren mende dagoenean, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) argitaratuko da, SPKLren 135.1 artikuluaren arabera.

Agiri honen **I. eranskinaren 31. atalean** azaltzen den VISESAren kontratatzailearen profilean, kontratuaren lizitazio-deialdiari buruzko informazioa emango da, bai eta administrazio-klausula partikularren agiriak eta, hala badagokio, dokumentazio osagarria ere eskuragarri egongo dira.

Eskaintza aurkezteko beharrezko dokumentazio guztia bitarteko elektronikoen bidez eskuragarri egongo da, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunetik aurrera.

Lizitazio-prozeduran interesa dutenek agiriei eta gainontzeko dokumentazio osagarriei buruzko informazio gehigarria eskatu ahalko dute, agiri honen I. eranskineko 30. atalean zehaztutako aurrerapenarekin.

16. klausula Adjudikatzeko irizpideak

Kontratua adjudikatzeko oinarri izango diren irizpide objektiboak **1. klausularen 17. atalean** ezarritakoak izango dira, dagokien haztapenarekin edo, bestela, garrantziaren arabera, handienetik txikienera.

Adjudikazio-prozedura hainbat fasetan antolatzen denean, adjudikazio-objektiboen artean, klausula horren atal berean, hala badagokio, lehenengo fasean baloratuko direnak zehaztuko dira, eta fase bakoitzean adierazitako gutxieneko puntuazioa lortu beharko da eskaintzaren erabakitze-fasean baloratu ahal izateko. Era berean, hala badagokio, atal honetan adieraziko dira eskaintza bat anormaltzat jotzeko kasuak identifikatzeko aukera emango dute parametro objektiboak, eskaintza osoari dagokionez.

Balio-iritziaren mendeko irizpideek automatikoki ebalua daitezkeen irizpideek baino haztapen handiagoa dutenean, kontratuaren xede den gaian adituak direnek osatutako batzorde batek edo erakunde tekniko espezializatu batek baloratuko ditu. Batzordea, hala badagokio, gutxienez hiru kidek osatuko dute. Kide horiek kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuetakoak izan daitezke, baina ezingo dira inolaz ere kontratua proposatzen duen organoari atxikita egon, organo horri baitagokio eskaintzen ebaluazioa egitea. Haren izendapena edo izendapena egiteko prozedura edo, hala badagokio, erakunde tekniko espezializatuaren izendapena **1. klausularen 17. atalean** ezartzen da, eta balio-iritzi baten bidez kuantifikatzen diren adjudikazio-irizpideei buruzko dokumentazioa ireki aurretik argitaratu behar da.

1. klausularen 1. atalean eskaintza integratzaileak onartzen direnean, aldez aurretik konparaziozko ebaluazio bat egingo da, lote-konbinazio partikular baterako lizitatzaile jakin batek aurkeztutako eskaintzek, oro har, lote horiekiko agirian ezarritako adjudikazio-irizpideak hobeto beteko lituzkeen zehazteko, lote bereizietarako aurkeztutako eskaintzak baino, banaka hartuta.

V. KAPITULUA. Kontratazio-organoa

17. klausula Kontratazio-organoa

SPKLren 61. artikuluari jarraikiz, kide bakarreko edo kide anitzeko kontratazio-organoei dagokie sektore publikoko erakundeen ordezkari izatea kontratazioen arloan, legezko edo erregelamenduzko arauaren edo estatutu-xedapenaren arabera haren izenean kontratuak sinatzeko ahalmena badute.

Bestalde, kontratazio-organoek arlo horretan dituzten eskumenak eta ahalmenak eskuordetu edo deskontzentratu ditzakete, sozietate-organoen kasuan eskumenen eskuordetzeari edo deskontzentrazioari aplika dakizkiokeen arauak eta formalitateak betez.

Agiriaren **I. eranskineko 2. atalean** zehazten da kontratu honetarako kontratazio-organoa zein izango den.

18. klausula Kontratuaren arduraduna

SPKLren 62.1 artikuluan jasotakoa betez, kontratazio-organoak izendatzen duen kontratuaren arduradunak kontratuaren gauzatzea gainbegiratu, erabakiak hartu eta beharrezko jarraibideak eman beharko ditu, kontratazio-organoak egozten dizkion eskumenen barruan, hitzartutako prestazioa behar bezala burutzen dela ziurtatzeko.

Horrez gain, kontratuaren arduradunaren zereginak dira:
a) Idatziz ematea prestazioa ondo egiten dela ziurtatzeko behar diren jarraibideak.
b) Prestazioaren behar bezala gauzatzen dela eta prestazioa jasotzen dela egiaztatzea.
c) Kontratistak kontratuaren indarrez bere gain hartutako betebeharrak betetzen dituela gainbegiratu eta egiaztatzea, eta kontratazio-organoari gerta daitezkeen ez-betetzeen berri ematea eta, hala dagokionean, kontratua suntsiaraztea edo zigorrak ezartzea proposatzea.
d) Baimena ematea kontratua gauzatzeko atxiki behar izan ziren giza baliabideak eta baliabide materialak aldatzeko.
e) Gehitu behar diren aldaketak proposatzea.
f) Kontratistari eskatzea kontratuari atxikitako langileen lan-baldintzei buruzko datuak eskatzea.
g) Kontratistari dokumentazio gehigarria eskatzea, kontratuak dirauen bitartean hirugarren erakundeen kaudimena edo/eta baliabideak badituela egiaztatzeko, kontuan izanik kaudimen edota baliabide horiek izan zirela kontratua adjudikatzeko prozeduran parte hartzeko oinarria.
h) Kontratistak azpikontratistekiko edo/eta hornitzaileekiko ordainketa betebeharra betetzen duela egiaztatzea.
i) Kontratua gauzatzean atzerapenik badago, atzerapena kontratistari egotz dakiokeen zehaztuko duen txosten bat egitea.
j) Kontratistari eskatzea akta bidez egiaztatzeko kontratua gauzatu ondoren euskarri guztiak itzuli dituela, edo datu pertsonalak gordetzen zituzten fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu dituela.

Kontratua betetzeari eta gauzatzeari dagokionez kontratuaren arduraduna eta kontratazio-organoa ez badatoz bat, kontratazio-organoaren irizpidea nagusituko da.

VI. KAPITULUA. Bermea

19. klausula Behin betiko bermea

145. artikuluaren arabera eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko berme bat eratu beharko du, eta kontratazio organoaren eskura jarri. Behin betiko bermea lizitatzaileak eskainitako prezioaren % 5 izango da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga edo, hala badagokio, lizitazioaren oinarri-aurrekontuaren zerga kanpo, agiri honen **I. eranskineko 14. atalean** aurreikusitakoaren arabera. Behin betiko bermea zazpi egun balioduneko epean egiaztatu beharko da, jakinarazpena bidaltzen denetik.

Edonola ere, behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuak estaliko ditu. Kontzeptu horien barruan dago kontratistak kontratuaren xede diren prestazioak gaizki gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra haustea (SPKLren 196. artikuluak aurreikusten duena).

Behin betiko bermea SPKLren I. liburuaren IV. tituluaren I. kapituluan araututakoaren arabera eratuko da, SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako edozein modutan.

Kontratua aldatzean prezioa ere aldatzen bada, enpresaburuari aldaketa horren berri eman eta 15 egun naturaleko epean, bermea egokituko du, kontratu berriaren prezioarekiko proportzio egokia manten dezan; hala egin ezean, kontratua amaitzeko arrazoitzat hartuko da. Zehapenak edo kalte-ordainak eraginkor egiten direnetik 15 egun naturaleko epean ere, adjudikaziodunak bermea dagokion zenbatekoarekin leheneratu edo handitu beharko du; hala egin ezean, kontratua amaitzeko arrazoitzat hartuko da. Ondorio horietarako, I. liburuaren III. tituluaren II. kapituluan jasotakoa betez, ez dira aintzat hartuko prezioa berrikustearen ondorioz ematen diren prezio-aldaketak.

Berme osagarria SPKLren 107.2 artikuluan jasotakoaren arabera ezarriko da, eta, hala badagokio, agiri honen **I. eranskineko 15. atalean** jasotakoaren arabera.

20. klausula Behin betiko bermea itzultzea eta kitatzea

Behin kontratuaren kitapena onartuta, behin betiko bermearen bidez gauzatu beharreko erantzukizunik ez badago eta agiri honen **I. eranskineko 28. atalean** zehazten den bermealdia amaitu bada, bermea itzultzea erabakiko da.

Baldin eta prestazioa zatika jasotzea ezarri bada, agiri honen **I. eranskineko 8. atalean** bermearen partzialki kitatzeari buruz jasotakoari men egingo zaio.

II. TITULUA KONTRATUAREN LIZITAZIOA

I. KAPITULUA. Proposamenak

21. klausula Proposamenak aurkeztea

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte batean proposamenik egin, aurretiaz bere izenean egin badu, ezta aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan parte hartu ere. Arau horiek hautsiz gero, hark sinatutako proposamen guztiak ez dira onartuko.

Proposamenak aurkeztean, enpresaburuak kontratua arautzen duten agirietan aurreikusitako klausulak edo baldintzak osorik eta mugarik gabe onartzen dituela iritziko zaio, inolako eragozpenik eta salbuespenik gabe.

Aldagaiei dagokionez, agiri honen I. eranskineko 18. atalean jasotakoa bete beharko da.

22. klausula Bitarteko elektronikoak

Eskaintzak baliabide elektroniko bidez aurkeztuko dira LIZITAZIO ELEKTRONIKOAREN SISTEMA izeneko aplikazioaren bitartez, zeina hemen baitago: KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN - EUSKADIKO KONTRATAZIO PUBLIKOAREN PLATAFORMA - LIZITAZIO ELEKTRONIKOAREN SISTEMA. Horretarako, agiri honetako I. eranskineko 32. atalean xedatutakoa beteko da.

22.1.- Hauek dira erabilera baldintzak:

1. Administrazio-baldintzak:
a) Izapide elektronikoaren ondorioetarako, EAEko Administrazioaren eskutik erabilera baimendua daukan ziurtagiri digital bat edukitzea. Gaur egun, hauek dira ziurtagiri elektronikoak:
- Izenpe (Erakundea, Herritarra, Erakunde Ordezkaria)
- FNMT (Erakundea, Herritarra, Erakunde Ordezkaria)
- NAN-e
- Camerfirma (Erakundea, Herritarra, ziurtagiri hauekin oso jende gutxi sartu da aplikazioan)

b) Honako egoera hauetakoren batean egotea:
a. Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda egotea eta indarrean ziurtagiria edukitzea.
b. Behin-behineko gaikuntza sisteman alta emanda egotea.
c. Operadore ekonomiko bi edo gehiago elkartuta lehiatzen badira ABEE bat formalki osatzeko konpromisoarekin, adjudikaziodun aukeratzen badituzte: orduan ABEEa osatzeko konpromisoak behin-behineko gaikuntza sisteman erregistraturik egon behar du.

2. Baldintza teknikoak:

Baldintza teknikoen gaineko informazioa esteka honetan dago eskuragarri:
https://apps.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/cambios_configuracion.html
3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza-zerbitzua: 945016298.

22.2.- Aurkezteko modua:
a) Honako luzapen hauekin gordetako dokumentuak bakarrik irakurri eta izapidetuko direla bermatzen da: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip, eta .7z
b) Birusek sistemaren eraginkortasunean eduki dezaketen eragina ahalik eta txikiena izan dadin, dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuan bidaltzea gomendatzen da.
c) Ulertuko da eskaintza bat aurkezpen epean jaso dela baldin eta transmisioa epe barruan hasten bada eta arrakastaz amaitzen bada.

23. klausula Proposamenaren forma eta edukia

Proposamenek eta horiekin batera doazen agiriek HIRU (3) GUTUN-AZAL izango dituzte.

A) 1. GUTUN-AZALA. ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA

B) 2. GUTUN-AZALA: BALIO-IRITZI BATEN ARABERA KUANTIFIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

C) 3. GUTUN-AZALA. FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA

Lizitatzaileek izaera konfidentziala duen lizitaziora ekarritako dokumentazioa edo informazioa adierazi beharko dute, sekretu tekniko edo komertzialei, eskaintzaren alderdi konfidentzialei eta lehia faltsutzeko edukia izan dezaketen beste edozein informaziori eragiten dielako, dela lizitazio-prozedura honetan, dela ondorengo beste batzuetan. Konfidentzialtasuna ezin izango da proposamenaren eduki osora zabaldu, hedapen mugatua duten dokumentuei soilik eragin diezaieke, eta inola ere ez publikoki eskura daitezkeen dokumentuei.

Gutun-azaletan, ondoren adierazten den dokumentazioa sartu beharko da:

A) 1. GUTUN-AZALA. "ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA". Honako dokumentu hauek jasoko ditu, nahitaez:

1. Lizitatzailearen **erantzukizunpeko adierazpena**, kontratazio-prozedura honetan parte hartzeko aurretiazko baldintzak betetzeari buruzkoa, "Europako Kontratazio Agiri Bakarraren" (EKAB) formulario normalizatuaren arabera, zeina Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Betearazpen Erregelamenduak ezartzen baitu, agiri honen II. eranskinean jasotakoaren arabera.

   Europako Batzordeak eskaintzen duen EKAB doako lineako zerbitzu elektronikoari esker, dokumentu hori bide elektronikoz bete daiteke Interneteko helbide honetan: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es, jarraian adierazten denaren arabera:

- EKAB zerbitzu elektronikoarekin, kontratazio-organoak EKAB eredu bat sortuko du prozedura horretarako, eta lizitatzaileen eskura jarriko da Kontratatzailearen Profilean, XML formatu normalizatuan, deialdiko gainerako dokumentuekin batera (dokumentazio osagarri gisa).

- Lizitatzaileak bere ordenagailuan biltegiratu beharko du eredu hori, XMLn, eta, ondoren, EKAB zerbitzu elektronikora sartu; han inportatu beharko du, behar diren datuak bete, inprimatu, sinatu eta EKAB aurkeztu beharko du, lizitazioko gainerako dokumentuekin batera.

Aldi baterako elkarte bat eratuz hainbat enpresaburu aurkezten badira, elkarte hori osatzen duten guztiek jarduteko gaitasuna dutela akreditatu beharko dute. Horretarako, guztiek EKAB formulario bana aurkeztu beharko dute, bai eta klausula honen atal honetan eskatzen diren gainerako dokumentuak ere. Konpromiso-idazki bat ere aurkeztu beharko dute, eta, bertan, honako hauek adierazi beharko dira: biltzen diren enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, enpresaburu bakoitzaren partaidetza-ehunekoa eta batasuneko ordezkari edo ahaldun bakarraren izendapena, kontratua indarrean dagoen bitartean, VISESAren aurrean ordezkaritza osoa izango duena. Dokumentu hori elkartea osatzen duten enpresa bakoitzeko ordezkariek sinatu beharko dute.

Lizitatzaileak kaudimena akreditatzeko beste erakunde baten edo batzuen gaitasunera jotzeko asmoa badu, EKAB aurkeztu beharko dute, erakunde horretatik/horietatik bereizita.

Kontratua lotetan banatuta badago eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionalari buruz eskatzen diren betekizunak lote batetik bestera aldatzen badira, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, kaudimen-baldintza berberak aplikatzen zaizkion lote edo lote-multzo bakoitzeko.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresek EKAB formularioan bertan adieraziko dute hori, eta eskatutako datu edo informazioren bat Erregistroan jasota ez badago edo eguneratuta ez badago, formulario hori betetzean aurkeztuko dituzte.

Hala ere, kontratazio-organoak egoki baderitzo, prozedura behar bezala amaituko dela bermatzeko, edozein unetan eskatu ahal izango du, adjudikazio-proposamena onartu aurretik, lizitatzaileek kontratuaren adjudikaziodun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela akreditatzen duten dokumentazioa aurkez ditzatela.

2. Plantillan desgaitasuna duten langileak izatera behartuta dauden enpresei buruzko adierazpena

Erantzukizunpeko adierazpena, agiri honen IX. eranskinean ezarritako ereduaren araberakoa. Horren bidez, adjudikazioduna izanez gero, agiri honen 34. klausulan ("desgaitasuna duten langileak plantillan izatera behartuta dauden enpresekin kontratatzeko neurriak") adierazitakoaren arabera, kontratua indarrean dagoen bitartean langile desgaituak enpresako plantillaren % 2an gutxienez enplegatuta izateko betebeharra bere gain hartzen du, baldin eta horiek 50 langile edo gehiago badituzte eta kontratista horren mende badago, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 42. artikuluaren arabera, edo apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuak erregelamendu bidez garatutako ordezko neurriak hartzearen arabera. Adierazpen horretan jasoko da, halaber, kontratua indarrean dagoen bitartean edo, nolanahi ere, behin betiko bermea itzuli aurretik kontratazio-organoaren aurrean akreditatu beharko duela goian aipatutako betebeharra betetzen duela.

Era berean, 50 langiletik gorako enpresen kasuan, adierazpen horretan adieraziko da berdintasun-plan bat dutela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatutakoa betez.

3. Talde bereko enpresak

Talde berekoak diren enpresek, halakotzat hartuko dira Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean daudenak eta banaka edo taldekoak ez diren beste enpresa edo enpresa batzuekin batera adjudikaziora aurkezteko proposamen desberdinak aurkezten dituztenak, baldin eta enpresa horiekin aldi baterako enpresa-elkarte batean parte hartzen badute, izaera hori jasotzen duen adierazpena aurkeztu beharko dute.
Adierazpen esplizitua aurkeztu beharko dute, halaber, hainbat proposamen aurkeztu eta Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako aukerako kasuren batean dauden sozietateek, hura osatzen duten bazkideei dagokienez.

4.- **Atzerriko enpresen jurisdikzioa**

Atzerriko enpresek, berariazko adierazpen batean, Espainiako auzitegi eta epaitegien jurisdikzioaren mende gelditzen direla adieraziko dute, kontratuari lotuta zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, eta lizitatzaileari zegokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko egiten zaiola adieraziko dute, hala badagokio.

B) 2. GUTUN-AZALA: "BALIO-IRITZI BATEN ARABERA KUANTIFIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA"

Gutun-azal honetan, 1. eranskineko 19. atalean eskatzen den dokumentazio teknikoa sartuko da, **1. eranskineko 17. atalean** zehaztutako balio-iritzi baten arabera kuantifikatzen diren adjudikazio-irizpide objektiboak aplikatzeari dagokionez, bai eta, oro har, lizitatzaileak aurkeztea komenigarritzat jotzen duen dokumentazio teknikoa ere, baina ezin izango da prezioari buruzko dokumentaziorik agertu.

C) 3. GUTUN-AZALA. "FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA"

Gutun-azal honek honako hauek jasoko ditu:

1. Proposamen ekonomikoa, agiri honen V. eranskinean ezarritako ereduaren arabera, lizitatzaileak entregatzeko konpromisoa hartzen duen epea barne, baita, hala badagokio, **1. eranskinaren 17. atalean** eskatutako kostuen banakapena ere.

Ez dira onartuko VISESAk eskaintza kontuan hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisio, akats edo zirriborroak dituzten proposamen ekonomikoak, eta, hala badagokio, 1. eranskineko 17.

atalean eskatutako kostuen banakapena jaso beharko da. Proposamenen batek ez badu bat egiten aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena eragiten badu, edo lizitatzaileak onartzen badu bideraezina egiten duen errore edo funtsik eza duela, kontratazio-mahaiak baztertu egingo du, eta ez da nahikoa izango ereduko hitz batzuk aldatzea edo omititzea, horrek ez badu haren zentzua aldatzen.

Proposamenean, jasanarazi beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa adierazi beharko da, aparteko partida gisa.

2. Agiri honen **1. eranskinaren 19. atalean** zehazten diren dokumentuak, gainerako adjudikazio-irizpideak aplikatzeko, formulak aplikatuz automatikoki baloratu daitezkeen prezioa eta, hala badagokio, entregatzeko epea ez direnak.

3. Agiri honen **1. eranskinean** hala eskatzen bada, lizitatzaileak azpikontratatu nahi duen kontratuaren zatia adierazi beharko da 3. gutun-azalean. Bertan, horren ardura hartuko duten azpikontratisten izena edo enpresa-profila adierazi beharko da, kaudimen profesionalaren edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztua.

24. klausula Lizitatzailearen izaera konfidentzialeko dokumentuak eta datuak

Lizitatzaileek adierazi beharko dute eskaintzetan gehitutako zein dokumentu (edo horien zein zati) edo datu diren konfidentzialak. Ez dira onargarriak izango eskaintzaren dokumentu edo datu guztien konfidentzialtasun-adierazpen orokorrak. Konfidentziala dena argi eta garbi adierazi beharko da izaera hori duen dokumentuan bertan, eta, gainera, izaera hori justifikatzen duten arrazoiak adierazi beharko dira. Lizitatzaileek berariaz konfidentzialtzat jo ez dituzten dokumentuak ez dira konfidentzialtzat joko. Egindako eskaintza ekonomikoa ez da inola ere konfidentziala izango.

25. klausula Aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioa, balorazioa eta proposamenak zabaltzea

Proposamenak onartzeko epea amaituta, kontratazio-mahaia eratuko da, administrazio-dokumentuak jasotzen dituen gutun-azala irekitzeko. Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak edo hutsuneak antzemanez gero, interesdunei jakinaraziko zaie, eta gehienez ere hiru egun naturaleko epea emango zaie lizitatzaileei horiek zuzentzeko, edo argibideak edo agiri osagarriak aurkezteko.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Mahaiak lizitaziorako onartutako enpresak, baztertutakoak eta atzera botatzeko arrazoiak zehaztuko ditu, dagokionaren arabera.

Dokumentazioa irekitzen denetik gehienez ere zazpi eguneko epean, hala badagokio, balio-iritziaren mende dauden irizpideei buruzko dokumentuak jasotzen dituzten gutun-azalak irekiko dira (2. gutun-azala), horiek baloratzeko ardura duen organoari horietan jasotako dokumentazioa emango zaio, eta egindako guztia agiri bidez jasoko da.

Mahaiak lizitatzaileei jakinaraziko die dokumentazioa egiaztatzearen emaitza eta, hala badagokio, balio-iritzi baten arabera haztatzen diren adjudikazio-irizpideen aldez aurreko balorazioa. Ondoren, 3. gutun-azal elektronikoa irekiko du ("formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen adjudikazio-irizpideei buruzko proposamen ekonomikoa eta dokumentazioa"), onartutako enpresen eskaintzak eta, hala badagokio, formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa irakurriko dira, eta egintzaren ondoriozko akta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Anormalki baxutzat har daitekeen proposamenen bat identifikatzen bada, hala badagokio, SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako izapideak egingo dira, 1. eranskineko 17. atalean adierazitakoarekin bat etorriz.

Bi eskaintza edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, baldintza-agiri honetan adierazitako berdinketa hausteko irizpideak akreditatzen dituen dokumentazioa eskatuko zaie eragindako lizitatzaileei.

II. KAPITULUA. Adjudikazio-proposamena, adjudikatzea, gauzatzea eta formalizatzea

26. klausula Adjudikazio-proposamenaren ondorioak Adjudikazioa ez egiteko edo kontratua ez gauzatzeko erabakia eta VISESAren adjudikazio-prozedurari uko egitea

Kontratuaren adjudikazio-proposamenak ez du sortzen inolako eskubiderik proposatutako lizitatzailearen alde, eta ez ditu lortuko VISESAren aurrean kontratua formalizatu ez den bitartean.

SPKLren 152. artikuluan xedatutakoa betez, kontratua ez adjudikatzeko edo ez gauzatzeko erabakiak edo prozedurari uko egiteak kontratazio-organoak adostu ahalko ditu formalizatu aurretik.

Ez adjudikatzeko edo kontratua ez gauzatzeko erabakia soilik espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta hartu ahal izango da. Prozedura bati uko egiteko kontratua prestatzeko arauek edo adjudikazio-prozedura arautzen dutenek konpondu ezin duten arau-hauste bat egon beharko da, eta espedientean arrazoi hori justifikatu beharko da.

27. klausula Kontratuaren adjudikazioa

Kontratuaren adjudikazioa agiri honetan I. eranskineko 2. atalean adierazitako kontratazio-organoari dagokio.

Kontratazio-organoak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari adjudikatuko dio kontratua, SPKLren 145. artikuluan xedatutakoa betez. Aintzat hartuko den irizpide bakarra prezioa denean, iritziko zaio eskaintzarik onena preziorik txikienekoa dela; dena dela, anormalki baxuak diren eskaintzak zehazteko irizpideak ezarri ahal izango dira. Adjudikaziorako irizpide anitz erabiltzen direnean, kalitate-prezio erlazio onena hartuko da oinarritzat.

Mahaiak puntuaziorik onena lortu duen enpresari eskatuko dio, jakinarazpen elektroniko baten bidez, behin betiko bermea, hau da, SPKLaren 75.2 artikuluan aipatzen den konpromisoa eratu dezan (VIII. eranskinean adierazitako ereduaren arabera), eta lege horren testuaren 76.2 artikuluaren arabera kontratua betearazteko erabiltzeko edo atxikitzeko agindu dituen baliabideak benetan badituela dokumentazioaren bidez egiazta dezan, edo, hala badagokio agiriaren I. eranskineko 16. atalean adierazitako polizetan izena eman duela, hori guztia 10 egun balioduneko epean, jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

Enpresaburua Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Kontratisten Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo erregistro baliokidean inskribatuta badago, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean agertzen bada, enpresaren espediente birtual bat, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema bat edo aurrekalifikazio-sistema bat bezala, eta organo horiek doan eskuratu badaitezke, ez du aurkeztu beharrik izango toki horietan inskribatutako datuei buruzko justifikazio-agiririk edo bestelako froga dokumentalik, eta lizitatzaileak dagokion Erregistroan edo datu-basean inskribatuta dagoela adierazi beharko du berariaz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Kontratisten Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo erregistro baliokidean izena emanez gero, inskribatutako lizitatzaileak salbuetsita egongo dira kontratazio-deialdietan, adierazitakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean, enpresaburuaren gaitasun-baldintzak aurkeztetik, haren izaerari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, lanbide- edo enpresa-gaikuntzari, ekonomia- eta finantza-kaudimenari eta sailkapenari dagokienez, bai eta bertan jaso beharreko kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatzen duen agiria ere.

SPKLren 139.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, proposamenak aurkezteak baimena ematen dio kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Kontratisten Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo erregistro baliokidean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Gainera, 10 egun balioduneko epean, Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste edozein agiri aurkeztu beharko du.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Kontratisten Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo erregistro baliokidean inskribatuta ez badago, edo datu edo dokumenturen bat erregistro horretan inskribatuta ez badago, kontratazio-mahaiak eskaintza onena aurkeztu duen enpresaburuari eskatu beharko dio, bai eta ABEEa osatzen duten eta adjudikaziodun gisa proposatu diren enpresa guztiei ere, jakinarazpena bidali eta 10 egun balioduneko epean, hala badagokio, dokumentazio hau aurkez dezaten:

1.- Jarduteko gaitasuna

1.1.- Enpresa pertsona juridikoa bada, eratze-eskritura edo -agiria, bere jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituzten estatutuak edo sortze-egintza, behar bezala inskribatuta, hala badagokio, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan, bai eta identifikazio fiskaleko zenbakia ere (IFZ).

1.2.- Banakako enpresaburua bada, NANa edo, hala badagokio, haren ordezko dokumentua.
1.3.- Espainiakoak ez diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna, Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrak badira, dagokion erregistroan inskribatuta egotearen bidez akreditatuko da, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiri bat aurkeztuta, Erkidegoko xedapen aplikagarrien arabera.
1.4.- Aurreko paragrafoan aipatzen ez diren atzerriko enpresen kasuan, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena, enpresak egiaztatu ondoren.
1.5. Nazioarteko akordioetatik eratortzen diren Espainiaren betebeharrak aplikatzea eragotzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen duela, aldi berean, Espainiako enpresek 3. artikuluan zerrendatzen diren eta onargarriak diren sektore publikoko erakundeekin egindako kontratazioetan parte hartzea. Funtsean txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioarekin batera aurkeztuko da.
1.6.- Atzerriko enpresek ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulitako dokumentazioa aurkeztuko dute.

2.- Ahalordeak

Lizitatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Kontratisten Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo erregistro baliokidean inskribatuta badago, ez da beharrezkoa izango ahalordea aurkeztea, ordezkaritza hori behar bezala inskribatuta dagoenean.

Lizitatzailea erregistro horretan inskribatuta ez badago, beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek edo pertsona juridiko bat ordezkatzen dutenek, eskriturak edo ordezkariaren ahalmenak akreditatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

3.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala

Lizitatzaileek kaudimena egiaztatu ahal izango dute kaudimen ekonomiko, finantzarioa eta tekniko edo profesionalari buruzko berariazko betekizunen bidez, agiri honen I. eranskineko 11. atalean adieratako bitartekoak erabiliz, edo bestela, I. eranskineko 11. atalean adierazitako taldean edo azpitaldean eta kategorian sailkatuta.

Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresaburu ez-espainiarrek beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, SPKLren 87. eta 90. artikuluetan ezarritako moduan, eta kontratazio-organoak agiri honen I. eranskineko 11. atalean aurreikusitako bideak erabiliz.

Ondorio horietarako, Europar Batasuneko estatu kideek ezarritako kontratatzeko baimena duten enpresaburuen zerrenda ofizialak eramateko eskumena duten organoek emandako inskripzio-ziurtagiriak, ziurtagiria ematen duen estatu kideko enpresaburuei dagozkienak, gaitasun-presuntzioa izango dira, bertan ageri diren hautaketa kualitatiboko betekizunei dagokienez.

Presuntziozko balio bera izango dute, ziurtagirietan jasotako alderdiei dagokienez, enpresaburua kokatuta dagoen estatu kideko legeriarekin bat etorriz Europako ziurtapen-arauak betetzen dituzten ziurtapen-erakunde eskudunek egindako ziurtagiriek.

Aurreko paragrafoan aipatutako agiriek enpresaburua zerrendan inskribatzea edo ziurtagiria ematea ahalbidetu duten erreferentziak adierazi beharko dituzte, bai eta lortutako sailkapena ere.

4.- Enpresa-gaikuntza

Lizitatzaileak enpresa-gaikuntza akreditatu behar badu klausula-agiri honen I. eranskineko 13. atalean xedatutakoaren arabera, gaikuntza hori akreditatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

5.- Enpresaburuen aldi baterako elkarteak

Aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala zehazteko orduan, elkarteko kide bakoitzarentzat akreditatutako ezaugarriak metatuko dira.

Taldekatuta aurkezten diren enpresaburuei dagokienez, sailkapen-betekizuna baloratzeko eta balioesteko, enpresaburu bakoitzaren ezaugarri metatuak hartuko dira kontuan, erregelamendu bidez zehazten den moduan, bakoitzaren sailkapenetan adierazita. Nolanahi ere, metaketa hori egiteko, beharrezkoa izango da enpresa guztiek aldez aurretik zerbitzu-enpresa gisa sailkatuta egotea, Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez-espainiarrentzat eta artikulu honetako 4. atalean Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuentzat ezarritakoa eragotzi gabe.

Sailkapenak metatzeko araubidea erregelamendu bidez ezarritakoa izango da.

Sailkapena eska daitekeen kasuetan eta elkartean enpresaburu nazionalek, Europar Batasuneko estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatu bateko herritarrak ez diren atzerritarrek eta Europar Batasuneko estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatu bateko herritarrak diren atzerritarrek parte hartzen badute, lehen bi taldeetako kideek sailkapena akreditatu beharko dute, eta azken horiek kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala.
Kontratua aldi baterako enpresa-elkarte bati adjudikatzen bazaio, elkarte horrek eskritura publikoan eratu dela akreditatuko du, bai eta elkarte horri esleitutako IFZ ere, kontratua haren alde esleitu ondoren. Nolanahi ere, elkartearen iraupena kontratua azkendu artekoa izango da.

6.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak

Zerga-betebeharrak:

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan kontratuaren xedeari dagokion epigrafean alta eman izanaren jatorrizkoa edo kopia konpultsatua, betiere zerga horri lotutako jarduerak egiten baditu, dagokion ekitaldiari edo azken ordainagiriari buruzko proposamena aurkezten duen egunean egiten dituen jarduerei dagokienez, eta zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpenarekin osatuta.

Zergatik salbuetsita dauden subjektu pasiboek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, salbuespenaren arrazoia adieraziz. Zergatik salbuetsita dauden subjektu pasiboek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, salbuespenaren arrazoia adieraziz. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 82.1 artikuluko b), e) eta f) letretan ezarritako salbuespenen batean egonez gero, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren salbuespenari buruzko berariazko ebazpena ere aurkeztu beharko dute.

Aldi baterako enpresa-elkarteek, eraketa formalizatu ondoren, zergan alta emanda daudela akreditatu beharko dute, hura osatzen duten enpresei dagokien zerga-ordainketa alde batera utzi gabe.

d) b) Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandako ziurtagiri positiboa, APKLEOren 13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla oro har jasotzen duena.

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak:

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandako ziurtagiri positiboa, APKLEOren 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla oro har jasotzen duena.

Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren hemezortzigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz, araubide berezian alta emateko betebeharretik salbuetsita dauden eta dagokion lanbide-elkargoko Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatean sartzeko aukera egin duten elkargokide profesionalek kasuan kasuko mutualitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, mutualitatekoak direla akreditatzen duena.

Ziurtagiri hori aurkezteak ez du interesduna salbuesten klausula-agiri honetan adierazten diren gainerako betebeharrak justifikatzetik, baldin eta bere kargura langileak baditu; bestela, egoera hori erantzukizunpeko adierazpen bidez justifikatu beharko du.

7.- Kontratistak datuak tratatzea. Obra gauzatzeak kontratistak datuak tratatzea badakar, kontratistak adierazpen bat aurkeztu beharko du. Adierazpen horretan azaldu beharko du non egongo diren datuak jasoko dituzten zerbitzariak eta nondik emango diren horiei lotutako zerbitzuak. Adierazpen horretan jasota geratu beharko da gertatzen den edozein aldaketa jakinarazteko betebeharra, kontratuaren bizitzan zehar, adierazpenean emandako informazioari dagokionez.

Dokumentazioa aurkeztu ondoren, adjudikaziodun gisa proposatutako lizitatzaileari adjudikatuko zaio kontratua, eta adjudikatu ondoren, formalizatu egingo da. Bestela, lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZ kanpo) % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, zigor gisa, 71. artikuluaren 2. ataleko a) letran ezarritakoa galarazi gabe, eta puntuazioan hurrengo hautagaiaren aldeko adjudikazio-proposamena egingo da, eskatutako dokumentazioa aurkezteko 7 egun balioduneko epea emanez.

Adjudikazioa lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.

Kontratazio-organoak lizitazioa adjudikatu gabe utzi ahal izango du, hala badagokio, kontratazio-mahaiak proposatuta, agirian agertzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintzarik edo proposamenik ez badago.

SPKLren 147.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratua adjudikatzeko irizpideak aplikatu ondoren eskaintza bat baino gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, honako irizpide sozial hauek aplikatuko dira, hurrenkera honetan, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko uneari dagozkionak:

a) Enpresa bakoitzeko plantillan desgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa, eta berdintasuna gertatuz gero, plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena edo inklusio-egoeran dauden langileen kopuru handiena lehenetsiko da.
b) Aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena enpresa bakoitzeko plantillan.
c) Enpresa bakoitzeko plantillan emakumezko enplegatutaen ehuneko handiena.
d) Aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada, zozketa egingo da.

Irizpide horiek aplikatzeko, lizitatzaileek, hala badagokio, lan-kontratuen eta Gizarte Segurantzako kotizazio-agirien bidez egiaztatu beharko dituzte, bai eta zuzenbidean onartutako beste edozein agiriren bidez ere, goian aipatutako irizpide sozialak akreditatzen badituzte.

28. klausula Kontratua gauzatzea eta formalizatzea

Kontratua formalizatzearekin batera gauzatuko da, baina kontratua ezin izango da gauzatu lizitatzaileei adjudikazioaren jakinarazpena bidali eta hamabost egun baliodun igaro baino lehen, kontratazioaren arloko errekurtso berezia jar badaiteke.

Kasu horretan, kontratazio-organoak, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro eta ez bada kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik jarri, edo etenaldia kendu bada, adjudikaziodunari eskatuko dio kontratua gehienez ere bost eguneko epean formalizatzeko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gainerako kasuetan, kontratua gehienez ere hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da, lizitatzaileei adjudikazioaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Kontratua idatziz formalizatu beharko da, eta lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko da. Gainera, eskritura publikoan formalizatu ahal izango da kontratistak hala eskatzen badu, eta kontratua emateak dakartzan gastuak bere gain hartuko ditu. Kasu horretan, kontratistak aipatutako dokumentuaren kopia legitimatu bat eta kopia sinple bat eman beharko dizkio VISESAri, formalizatzen denetik gehienez hilabeteko epean.

SPKLren 153.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, adjudikaziodunari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epean formalizatzen ez bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa (BEZik gabe) eskatuko zaio, zigor gisa. Zenbateko hori ordainduko da, lehenik, behin betiko bermearen kontra, alde batera utzi gabe SPKLren 71. artikuluko 2) apartatuaren b) letran ezarritakoa.

III. TITULUA. KONTRATUA GAUZATZEA

I. KAPITULUA. Kontratistaren eskubideak eta betebeharrak

Lehenengo atala. Kontratistari egin beharreko ordainketak

29. klausula Balorazioak eta ordainketak

Kontratistak eskubidea du emandako kontratuaren, haren aldaketa onetsien eta VISESAk emandako jarraibideen arabera benetan gauzatzen dituen zerbitzuak ordain dakizkion, hitzartutako prezioen arabera. Ordaintzeko modua eta maiztasuna agiri honen **I. eranskineko 7. atalean** zehaztutakoak izango dira.

Horretarako, SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren bigarren atalarekin bat etorriz, kontratistak kontratazio-organoaren eta hartzailearen identifikazioa idatziz jaso beharko du aurkeztutako faktura bakoitzean, agiri honen **I. eranskineko 2. atalean** xedatutakoaren arabera.

VISESAk hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko du prezioa, emandako zerbitzuen kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartzen diren egunetik zenbatzen hasita, eta, berandutuz gero, hogeita hamar eguneko epe horretatik aurrera, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina ordaindu beharko dizkio kontratistari, abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako moduan, operazioetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituena.

Interesak sortzeko epea zenbatzen hasteko, kontratistak dagokion erregistroan faktura aurkezteko betebeharra beteta izan beharko du, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, garaiz eta behar bezala, eta, horretarako, hogeita hamar eguneko epea izango du, salgaiak entregatzen direnetik edo zerbitzua ematen denetik zenbatzen hasita.

210. artikuluaren 4. atalean ezarritakoa alde batera utzi gabe, emandako zerbitzuen kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartu beharko ditu VISESAk, zerbitzua eman eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

Nolanahi ere, kontratistak ez badu hogeita hamar eguneko epea betetzen faktura elektronikoa dagokion erregistroan aurkezteko, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, interesen sortzapena ez da hasiko faktura behar bezala aurkeztu eta hogeita hamar egun igaro arte, VISESAk onespenik eman gabe, hala badagokio, eta dagokion ordainketa egin gabe.

Segidako traktuko zerbitzu-kontratuetan, kontratuaren arduradunak, benetan egindako lanak eta kontratatutako prezioak ikusita, dagozkion balorazioak idatziko ditu, APKLEOren 199. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Balorazioak jatorrian egingo dira beti, eta kasuan kasuko aldian egindako lanak zehaztuko dira. Kontratistaren entzunaldiari dagokionez, APKLEOren 149. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Egindako lanak ordaintzeko ziurtagiriak egiteko, dagokion balorazioa hartuko da oinarritzat, eta kontratuaren arduradunak izapidetuko ditu, lanei dagokien denbora-tartearen ondorengo hamar egunen barruan. Hala ere, ezin izango da balorazioa idatzi gabe utzi, aldi batean egindako prestazioa bolumen txikikoa izan delako, ezta baliogabea ere, kontratua etetea erabaki ez bada behintzat.

Agiri honen I. eranskineko 7. atalean berariaz aurreikusten bada, balorazio partzialak egin ahal izango dira lanen zati bat entregatu aurretik egindako lanengatik, APKLEOren 200. artikuluaren arabera; kasu horretan, klausula-agiri honen **I. eranskineko 7. atalean** xedatutakoari jarraituko zaio.

Bigarren atala. Kontratistari egin beharreko eskakizunak

30. klausula Kontratistari eska dakizkiokeen betebeharrak, gastuak eta zergak

Kontratua gauzatzeko, kontratuaren klausulak bete beharko dira, eta VISESAk kontratistari kontratua interpretatzeko ematen dizkion jarraibideak bete beharko dira.

Kontratistaren kontura izango dira gastu eta zergak, kontratua eskritura publiko bihurtuz gero kontratua formalizatzekoak, bai eta kontratua gauzatzeko behar diren lizentzia, onespen eta baimen guztiak ere. Era berean, enpresak kontratua betetzeko egin behar dituen gastu guztiak ordaindu beharko ditu, hala nola gastu orokorrak, finantzarioak, aseguruak, garraioak eta joan-etorriak, materialak, instalazioak, bere ardurapeko langileen ordainsariak, egiaztapen- eta entsegu-gastuak, tasak eta era guztietako zergak, BEZa eta kontratua indarrean dagoen bitartean kontratua gauzatzetik erator daitezkeen beste guztiak.

Lizitatzaileek egiten dituzten eskaintzetan eta adjudikazio-proposamenetan, ondorio guztietarako, kontzeptu desberdinak zergapetzen dituzten edozein motatako zergak sartzen direla ulertuko da.

Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoan, partida independente gisa adieraziko da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) zenbatekoa.

Hirugarren atala. Lan- eta gizarte-xedapenak eta gardentasun-xedapenak

31. klausula Lan-, gizarte- eta gardentasun-betebeharrak

Kontratistak lan eta gizarte segurantzaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du. Era berean, nahitaez bete behar ditu azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea, eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretu bidez onartua, bai eta kontratua gauzatzean aldarrikatzen diren arauak ere.

Enpresa kontratistak, kontratua gauzatzeko aldi osoan, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako arauak eta baldintzak bete beharko ditu; nolanahi ere, adjudikaziodunak langileen soldata-baldintzak bete beharko ditu, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera.

Era berean, Gardentasunari, informazioa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratuaren adjudikaziodunak arau horretan aurreikusitako betebeharrak betetzeko behar den informazio guztia eman beharko dio VISESAri, hark aldez aurretik eskatuta.

32. klausula Lan-kontratuetako subrogazio-baldintzei buruzko informazioa

Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek adjudikaziodunari lan-harreman jakin batzuetan enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen dionean, subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa emango zaie lizitatzaileei, neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza ahalbidetzeko beharrezkoa dena, eta informazio hori SPKLren 130. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko ematen da.

Kontratu honen adjudikaziodun gertatzen den enpresak, eragindako langileak enplegatzen baditu, aurretik aipatutako informazioa eman beharko du, kontratuaren arduradunak hala eskatuta. Informazioaren zati gisa, subrogatuko diren langileen zerrendak aurkeztu beharko dira, honako hauek adierazita: aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa, kategoria-xehetasunak, kontratu-mota, lanaldia, antzinatasun data, kontratuaren epemuga, langile bakoitzaren urteko soldata gordina, eta subrogazioak eragiten dien langileei aplikatu beharreko indarreko itun guztiak.

Nolanahi ere, subrogazio-araubideari dagokionez, SPKLren 130. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

SPKLren 130. artikuluan aurreikusitakoa betez, legezko arau baten, hitzarmen kolektibo baten edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio baten bidez subrogatzeko betebeharra I. eranskineko 1. atalean jasotzen da, eta, hala badagokio, kontratuaren xede den prestazioa egiten ari den enpresak emandako informazioa, subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioari buruzkoa, lan-kostuen ebaluazio zehatza ahalbidetzeko.

Halaber, eta, hala badagokio, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa aplikatzea eragotzi gabe, kontratistak nahitaez

erantzun behar die subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabeko soldatei, bai eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioei ere, nahiz eta kontratua suntsiarazten den eta kontratista berriak haiek subrogatzen dituen, baina betebehar hori ez dagokio inola ere azken kontratistari. Kasu horretan, VISESAk, aipatutako soldatak ez direla ordaindu akreditatu ondoren, aipatutako Legearen 130.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera jokatuko du.

Kontratistak SPKLren 130. artikuluan aurreikusitako betebeharra betetzen ez badu, zigorrak ezarriko dira 192. artikuluan ezarritako mugen barruan, klausula-agiriaren I. eranskineko 28. atalarekin bat etorriz.

Laugarren atala. Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen babesa

33. klausula Konfidentzialtasun betebeharra

Konfidentzialtasunari dagokionez, SPKLren 133. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Kontratistak kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, agirietan edo kontratuan izaera hori ematen bazaio edo, bere izaeragatik, konfidentzialtzat tratatu behar bada. Betebehar hori agiri honen **I. eranskineko 29. atalean** ezarritako epean mantenduko da.

Ezin izango da zabaldu enpresaburuek konfidentzialtzat jo duten eta kontratazio-organoak hala erabaki duen informazioa. Ondorio horietarako, lizitatzaileek gutun-azal bakoitzean izaera konfidentzial hori proposatzen duten dokumentuen zerrenda sartu beharko dute, eta horren arrazoia azaldu beharko dute.

34. klausula Datu pertsonalen babesa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoan, xedatutakoaren arabera, 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena, lizitatzaileen eta zerbitzuaren adjudikaziodunaren datu pertsonalen tratamenduari buruzko honako alderdi hauen berri ematen da:

Tratamenduaren arduraduna: VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI SA (IFK: A20306775, egoitza: Gamarrako Atea, 1A – 2. solairua – PK: 01013 Vitoria-Gasteiz – Araba –, telefonoa: 945 21 40 38 eta helbide elektronikoa: visesa@visesa.eus)

Datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak: dpo@visesa.eus

Tratamenduaren helburua: zerbitzuaren lizitazio hau kudeatzea, azkenean adjudikaziodun izanez gero, kontratu-harremana eta ematen dituen zerbitzuak behar bezala mantentzeko, garatzeko, betetzeko eta kontrolatzeko.

Legitimazioa: lizitatzaileen datu pertsonalei dagokienez, datu pertsonalak tratatzeko oinarri legala edo juridikoa hura kudeatzeko beharrezkoak diren kontratu aurreko neurrien aplikazioa da.
Adjudikaziodunaren datu pertsonalei dagokienez, legezko oinarria aldeen artean sinatzen den kontratua gauzatzea da.

Datuen hartzailea: Herri Kontuen Euskal Epaitegia, gure jarduera fiskalizatzen duen organo gisa, eta hori guztia Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1988 Legean xedatutakoa betez, eta, hala badagokio, zerga-betebeharrak betetzeko eskumena duen zerga-administrazioa, eta hori guztia probintzia bakoitzean aplikatzekoa den Zergei buruzko Foru Arauan xedatutakoa betez.

Datuak gordetzeko epea: lizitatzaileen datu pertsonalak lizitazioaren indarraldian gordeko ditugu, eta, amaitu ondoren, erantzukizunak preskribatzeko epeetan.
Enpresa adjudikaziodunari dagokionez, legezko betebeharren eta zerga-betebeharren preskripzioetan.

Datuak babesteko eskubideak: edozein unetan eskatu ahal duzu zure datu pertsonaletara sartzeko edo, hala badagokio, horiek zuzentzeko edo ezabatzeko, tratamendua mugatzeko (kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo defendatzeko soilik gordeko ditugu); horrez gain, datuen aurka egin ahal duzu, tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko (profilak egitea barne) edo datu pertsonalen eramangarritasunerako eskubidea ere baliatu ahal duzu. Horretarako, eskabidea bidali beharko diozu VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI SAri (IFK: A20306775, egoitza: Gamarrako Atea, 1A – 2. solairua – PK: 01013 Vitoria-Gasteiz – Araba –), edo mezu elektroniko bat dpo@visesa.eus helbideari, NANaren fotokopia batekin batera.

Erreklamazioa aurkeztu ahal duzu Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan, bai egoitza elektronikoaren bidez, bai honako helbide honetan: Jorge Juan kalea 6 (PK: 28001, Madril).

Kontratistak datuak tratatzea

1.- Kontratistak VISESAri eskaintzen dizkion zerbitzuak direla eta, haren ardurapean dauden fitxategien edo tratamenduen izaera pertsonaleko datuak eskuratu ahalko ditu.
2.- Kontratistak datu pertsonalen babesari buruzko araudi nazionala eta Europar Batasunekoa bete beharko ditu.
3.- Kontratua gauzatzeko VISESAk lagatako datuak jasoko dituzten zerbitzarien kokapena jakinarazi beharko dute, zerbitzari horiek kontratuari lotutako zerbitzuak non emango dituzten eta datu horiek babesteko estatuko eta Europar Batasuneko araudia betetzen duten.
4.- Tratamenduaren xedea.- Klausula hauen bidez, kontratista (tratamendu-eragilea) gaitzen da VISESAren (tratamendu-eragilea) kontura kontratu honetan deskribatutako zerbitzuak emateko beharrezko datu pertsonalak tratatzeko. Datu horiek honako hauekin lotuta egon ahalko dira: datuak biltzea, erregistratzea, egituratzea, aldatzea, kontserbatzea, erauztea, kontsultatzea, transmisio bidez komunikatzea, hedatzea, interkonektatzea, erkatzea, mugatzea, ezabatzea, suntsitzea, kopiatzea, analizatzea, bidaltzea eta/edo komunikatzea, dagokionaren arabera.
5.- Eragindako informazioa identifikatzea.- Enkargu honen xedea betetzetik eratorritako prestazioa gauzatzeko, VISESAk, tratamendu-eragileak, kontratistaren, tratamendu-eragilearen, esku jartzen ditu beharrezko dokumentazioa eta datuak, bereziki etxebizitzen erosleen datu pertsonalak, etxebizitzen alde edo onurarako jarduerak egin ahal izateko.
6.- Tratamendu-eragilearen betebeharrak.- Tratamendu-eragileak eta haren langileek honako betebehar hauek dituzte:

a. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak edo bertan jasotakoak enkargu honen xede den helbururako bakarrik erabiltzea. Ezin izango ditu, inola ere, datuak kontratu honetan jasotakoak ez diren beste xede batzuetarako erabili.
b. Datuak tratamendu-eragilearen jarraibideen arabera tratatzea.

Tratamendu-eragileak uste badu jarraibideetako batek DBEO edo Batasuneko edo estatu kideetako datuak babesteko beste edozein xedapen urratzen duela, eragileak berehala emango dio horren berri arduradunari.
Arduradunak ez badu argibide argirik eman eragileak bere esku dituen datu pertsonalei dagokienez jokatzeko moduari buruz, datuak tratatu aurretik fitxategiaren arduradunarekin harremanetan jarri beharko da eta jarraibide hori argitu beharko du.

c. Idatziz eraman beharko du arduradunaren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroa. Honako hau izan beharko du:
    1. Eragilearen edo eragileen eta arduradunaren kontura jarduten duen eragile bakoitzaren izena eta harremanetarako datuak, eta, hala badagokio, arduradunaren edo arduradunaren ordezkariarenak eta datuak babesteko ordezkariarenak.
    2. Arduradun bakoitzaren kontura egindako tratamenduaren kategoriak.
    3. Hala badagokio, hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde batera egindako datu pertsonalen transferentziak, hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde horren identifikazioa barne, eta, DBEOren 49. artikuluko 1. ataleko bigarren paragrafoan zehaztutako transferentzien kasuan, berme egokien dokumentazioa.
    4. Segurtasuneko neurri teknikoen eta antolamendu-neurrien deskribapena, honako hauei buruzkoak:
        a) Datu pertsonalen seudonimizatzea eta zifratzea.
        b) Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia iraunkorrak bermatzeko gaitasuna.
        c) Gertakari fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar berrezartzea.
        d) Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolakuntzazkoen eraginkortasuna egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko prozesu erregularrak.
        e) Tratamendu-eragileak neurri tekniko eta antolamendu-neurri egokiak aplikatzeko beharrezko bermeak eskaintzen dituela egiaztatzeko, eta, horrela, tratamendua Datuak Babesteko Europako Erregelamenduan xedatutakoaren bat etortzeko eta interesdunaren eskubideen babesa bermatzeko, VISESAk kontratistari neurri horien gaineko errekerimendua egin ahalko dio, bai kontratatu aurretik, bai zerbitzuak ematen ari den bitartean. Halaber, VISESAk egokitzat jotzen badu, tratamenduaren xede diren datuak jasota dauden sistemak eta euskarriak ikuskatu ahalko ditu.

d. Datuak ez jakinaraztea hirugarrenei, salbu eta tratamendu-eragileak berariazko baimena badu, eta legez onartutako kasuetan.

Eragileak arduradun beraren tratamendurako beste eragile batzuei jakinarazi ahal dizkie datuak, arduradunak emandako jarraibideak betez. Kasu horretan, arduradunak aldez aurretik eta idatziz

identifikatuko du datuak jakinarazi behar zaizkion erakundea (izen soziala, IFK eta helbidea) zein den eta jakinarazi beharreko datuak eta komunikazioa egiteko aplikatu behar diren segurtasun-neurriak zeintzuk diren, jakinarazpen horrek duen arriskua eta transmititu beharreko datu pertsonalak aztertu ostean.

Kontratistak hirugarren herrialde bati edo nazioarteko erakunde bati datu pertsonalak transferitu behar badizkio, Europar Batasuneko Zuzenbidearen edo aplikatu beharreko estatu kideen arabera, lege-eskakizun hori aldez aurretik jakinaraziko dio VISESAri, salbu eta eskubide hori ez bada debekatzen interes publikoko arrazoi garrantzitsuengatik.

Datuen nazioarteko transferentziari dagokionez, transferentzia egin baino lehen, kontratistak VISESAri jakinarazi eta idatziz akreditatu beharko du datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela, eta ziurtatu beharko du datuak jasotzen dituen erakundeak ere segurtasun hori emango duela eta Datuak Babesteko Europako Erregelamenduak eskatutako baldintza guztiak beteko dituela.

e. Azpikontratazioa. Ezingo dira azpikontratatu datu pertsonalen tratamendua dakarten eta kontratu honen xede diren prestazioetako bat ere, eragilearen zerbitzuen funtzionamendu normalerako beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak izan ezik.

   Tratamenduren bat azpikontratatu beharko balitz, arduradunari aurretiaz eta idatziz jakinarazi beharko zaio, 15 eguneko aurrerapenarekin. Halaber, azpikontratatu nahi diren tratamenduak adierazi behar dira, eta argi eta garbi identifikatu behar dira enpresa azpikontratista eta harekin harremanetan jartzeko datuak (gutxienez, izen soziala, IFK, helbidea eta gizarte-helburua). Azpikontratazioa gauzatu ahalko da balin eta arduradunak ez badu adierazten kontra dagoela epe horretan.

   Azpikontratista ere tratamendu-eragilea izango da, eta dokumentu honetan tratamendu-eragilearentzat ezarritako betebeharrak eta arduradunak ematen dituen jarraibideak bete beharko ditu. Hasierako eragileari dagokio hasiera harreman berria arautzea, eragile berria baldintza berberen mende egoteko (jarraibideak, betebeharrak, segurtasun-neurriak) eta hark dituen betekizun formalak izateko, datu pertsonalen tratamendu egokiari eta eragindako pertsonen eskubideen bermeari dagokienez. Azpiarduradunak betetzen ez badu, arduradunak erantzukizun osoa izaten jarraituko du arduradunaren aurrean, betebeharrak betetzeari dagokionez.

f. Enkargu honen bidez lortu dituen datu pertsonalak isilpean gordetzeko betebeharra mantentzea, baita xedea amaitu ostean ere.

g. Ziurtatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko konpromisoa hartuko dutela, eta horien berri eman beharko zaie.

h. Arduradunaren eskura mantentzea aurreko paragrafoan ezarritako betebeharra betetzen dela akreditatzen duen dokumentazioa.

i. Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek datu pertsonalen babesean beharrezko prestakuntza dutela bermatzea.

j. Tratamendu-eragileari laguntzea honako eskubide hauek baliatzeari dagokionez:

1. Sartzea, zuzentzea, ezabatzea eta aurka egitea.
2. Tratamendua mugatzea.
3. Datuen eramangarritasuna.
4. Banakako erabaki automatizatuen xede ez izatea, profilak egitea barne.

Eragindako pertsonek sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, datuen eramangarritasunerako eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak baliatzen badituzte tratamendu-eragilearen aurrean, hark berehala jakinaraziko dio VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI SAri, adierazitako helbide elektronikora.

Jakinarazpena berehala egin behar da, eta inola ere ezingo da berandutu eskaera jaso eta hurrengo lanegunetik, eta, hala badagokio, eskaera ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen beste informazio batzuk aurkeztuko dira.

k. Informaziorako eskubidea. Arduradunari dagokio informaziorako eskubidea ematea datuak biltzen diren unean.

l. Datuen segurtasun-urraketak jakinaraztea. Tratamendu-eragileak tratamenduaren arduradunari bidegabeko atzerapenik gabe jakinaraziko dizkio bere ardurapean dituen datu pertsonalen segurtasunaren urraketak, gehienez ere 24 orduko epea igaro aurretik, baita VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI SAk zehaztutako helbide elektronikoaren bidez ere. Horrez gain, gorabehera dokumentatzeko eta jakinarazteko informazio garrantzitsu guztia ere jakinaraziko dio.

   Jakinarazpena ez da beharrezkoa izango segurtasun urraketa hori pertsona fisikoen eskubide eta askatasunentzat arriskutsua izatea litekeena ez denean.

   Informazio hau izatekotan, gutxienez, honako hau aurkeztuko da:

   a) Datu pertsonalen urraketaren nolakotasuna deskribatzea, bai eta, ahal bada, eragindako interesdunen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua eta eragindako datu pertsonalen erregistroen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua.

b) Datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak komunikatzea, edo informazio gehiago eman dezakeen beste harremangune batenak.
c) Datu pertsonalen segurtasuna urratzeak izan ditzakeen ondorioak deskribatzea.
d) Datu pertsonalen segurtasunaren urraketa konpontzeko tratamenduaren arduradunak hartu dituen edo proposatu dituen neurriak deskribatzea; neurri horien artean egongo dira, hala badagokio, urraketaren ondorio negatiboak gutxitzeko neurriak.

Ezin bada informazioa aldi berean eman, ahal den neurrian, informazioa gradualki emango da, bidegabeko atzerapenik gabe.

Tratamendu-eragileari dagokio datuen segurtasunaren urraketak interesdunei albait azkarren jakinaraztea, litekeena denean urraketak pertsona fisikoen eskubide eta askatasunentzat arrisku handia ekartzea.

Jakinarazpena hizkera argi eta errazean egin beharko dira, eta, gutxienez:

a) Datuen urraketaren izaera azaltzea.
b) Datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak komunikatzea, edo informazio gehiago eman dezakeen beste harremangune batenak.
c) Datu pertsonalen segurtasuna urratzeak izan ditzakeen ondorioak deskribatzea.
d) Datu pertsonalen segurtasunaren urraketa konpontzeko tratamenduaren arduradunak hartu dituen edo proposatu dituen neurriak deskribatzea; neurri horien artean egongo dira, hala badagokio, urraketaren ondorio negatiboak gutxitzeko neurriak.

m. Tratamenduaren arduradunari datuen babesari buruzko eraginaren ebaluazioak egiten laguntzea, hala badagokio.

n. Tratamenduaren arduradunari kontrol-agintaritzaren aurreko kontsultak egiten laguntzea, hala badagokio.

o. Arduradunaren esku jartzea beharrezko informazio guztia bere betebeharrak betetzen dituela frogatzeko, bai eta arduradunak edo hark baimendutako beste auditore batek auditoriak edo ikuskaritzak egiteko ere.

p. Segurtasun-neurri tekniko eta antolakuntzako segurtasun-neurri egokiak hartzea, arriskuarekiko egokia den segurtasun-maila bermatzeko. Neurri horiek transmititutako, gordetako edo beste modu batera tratatutako datu pertsonalak suntsitzea, galtzea, ustekabean edo legez kontra aldatzea eta baimenik gabe jakinaraztea edo eskuratzea ekidin beharko dute. Dena den, honako hauetarako mekanismoak ezartzeko konpromisoa hartuko da:

a) Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia iraunkorrak bermatzeko neurriak.
b) Arin lehengoratzea datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea, gorabehera fisiko edo teknikoren bat gertatzekotan.
c) Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolakuntza-neurrien eraginkortasuna aldian-aldian egiaztatzea, ebaluatzea eta baloratzea, erregulartasunez.
d) Datu pertsonalak seudonimizatzea eta zifratzea, hala badagokio.

q. Datuen babeserako ordezkari bat izendatzea eta bere identitatea eta arduradunaren harremanetarako datuak jakinaraztea.

r. Datuen helburua. Tratamendu-eragileari itzuli beharko zaizkio izaera pertsonaleko datuak eta, hala badagokio, horiek jasota dauden euskarriak, prestazioa amaitu ostean.

Datuak itzultzean, eragileak erabilitako ekipo informatikoetan dauden datu guztiak ezabatu beharko dira.

Hala ere, eragileak kopia bat gorde dezake, datuak behar bezala blokeatuta, prestazioa gauzatzeko ardurak eratorri ahal diren bitartean.

7.- Tratamenduaren arduradunaren betebeharrak.- Tratamenduaren arduradunari dagokio:

a) Eragileari klausula honetako 3. atalean adierazitako datuak entregatzea.
b) Beharrezko aurretiazko kontsultak egitea.
c) Tratamenduaren aurretik eta tratamendu osoan zehar eragileak DBEO betetzen duela egiaztatzea.
d) Tratamendua gainbegiratzea, eta ikuskapenak eta auditoretzak egitea.

Bosgarren atala. Aseguruak eta kalteengatiko ardurak

35. klausula Aseguruak.

Kontratistak bere kargura izendatu behar ditu agiri honen **I. eranskinaren 16. atalean** adierazten diren aseguru-polizak, bertan ezartzen diren kontzeptu, kopuru, estaldura, iraupen eta baldintzen arabera.

36. klausula Kalte-galerengatiko kontratistaren erantzukizuna

Adjudikazioduna izango da hirugarrenei eragindako zuzeneko edo zeharkako kalte-galeren arduraduna, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren jarduketen ondorioz gertatzen badira.

Kalte-galerak VISESAk emandako agindu baten ondorio zuzena eta berehalakoa badira, VISESA izango da arduraduna, legeetan adierazitako mugen barruan.

Halaber, adjudikazioduna izango da lanen, prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren arduraduna, eta baita VISESArentzako edo hirugarrenentzako dituen ondorioen arduraduna, akatsengatik edo omisioengatik, metodo desegokiengatik edo baldintza okerrengatik kontratua gauzatzean.

Kontratistak kontratuaren xede diren prestazioak gaizki gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaindu beharra ez badu gauzatzen, VISESAk agiri honen I. eranskinaren 26. atalean zehaztutako zigorrak ezarriko ditu.

Enpresa adjudikaziodunak agiriaren ondorioz bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz VISESA enpresa kontratistarekin solidarioki zenbatekoak ordaintzera kondenatzen badute, ordaindutako zenbatekoa enpresa kontratistari jasanaraziko zaio, eta, horretarako, VISESAk egoki eta komenigarri den edozein ekintza administratibo edo judizial egiteko eskubidea izango du, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

II. KAPITULUA. Lagapena eta azpikontratazioa.

37. klausula Kontratua lagatzea.

SPKLren 214.2 artikuluaren bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz, baldintza agiriek nahitaez ezarriko dute kontratutik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkiola kontratistak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak izan ez badira, eta lagapenak ez badu merkatuko lehiaren benetako murrizketa eragiten. SPKLren 214. artikuluaren 2 ataleko b) letran ezarritakoari kalterik egin gabe, ezin izango zaio hirugarren bati laga kontratistaren ezaugarrien aldaketa nabarmena eragiten badu, hori kontratuaren nahitaezko elementua bada.

Kontratua lagatzeko aukerari dagokionez, agiriaren **I. eranskinaren 23. atalean** zehaztutakoari jarraitu beharko zaio.

38. Klausula Azpikontratazioa.

Agiri honen I. eranskinaren 22. atalean aurreikusitakoaren arabera, kontratistak gauzatze partziala adostu dezake hirugarrenekin, SPKLren 215. artikuluaren 2. ataleko d) eta e) letretan ezarritakoa salbu, eta gauzatzea, edo horren zati bat, kontratistak zuzenean egin beharko du, betiere SPKLren 215. artikuluko 2 atalean ezarritako baldintzak betetzen badira.

Baldintza horiek ez betetzea, edo azpikontratistaren gaitasuna ez akreditatzea, edo larrialdi egoera eragiten duten inguruabarrak ez egiaztatzea, edo azpikontratazioa premiazkoa izatea, honako ondorio hauetako bat izango da, kontratua gauzatzean izango duen eraginaren arabera eta SPKLen aurreikusitakoaren arabera:

a) Azpikontratuaren zenbatekoaren % 50erainoko zigorra kontratistak jasotzea, agiri honen I. eranskinaren 26. atalean zehaztutakoaren arabera.
b) Kontratua suntsitzea, betiere SPKLren 211. artikuluaren 1 ataleko f) letraren bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Halaber, eta hornitzaileen eta azpikontratisten ordainketei dagokienez, SPKLren 216. eta 217. artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Nolanahi ere, azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean soilik izango dute betebeharra, eta hark hartuko du bere gain VISESAren aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa, administrazio klausula partikularren agiriekin eta kontratuaren terminoekin bat, SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen, gizarte edo lan arloko betebeharrak betetzea barne, bai eta estatuko eta Europar Batasuneko araudia betetzea ere, datuak babesteari dagokionez.

Azpikontratistek ez dute VISESAren aurrean jardun beharko kontratistak haiekin eratorritako betebeharren ondorioz, kontratu nagusia eta azpikontratuak gauzatzearen ondorioz.

Kontratistak kontratua adjudikatu ondoren, eta gehienez ere, kontratua gauzatzen hasten denean, idatziz komunikatu beharko dio kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko asmoa, azpikontratatu nahi den prestazioa adieraziz, eta

azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak, legezko ordezkaria edo ordezkariak; halaber, kontratua gauzatzeko gaitasuna behar bezala justifikatu beharko du, eskura dituen elementu teknikoak eta giza baliabideak eta esperientzia kontuan hartuta.

Era berean, egin beharreko subkontratazioaren berri emateko VISESAri bidalitako idazkiarekin batera, kontratistak akreditatu beharko du azpikontratista ez duela kontratatzeko debekurik, SPKLren 71. artikuluaren arabera. Akreditazio hori gauzatu daiteke azpikontratistaren erantzukizunpeko adierazpenaren bidez.

Kontratista nagusiak kontratazio-organoari idatziz jakinarazi beharko dio informazio horrek duen edozein aldaketa kontratu nagusia betearaztean, baita azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazioa ere.

Kontratistak langileen ordezkariei azpikontratazioaren berri eman beharko die, lan-araudiaren arabera.

I. eranskinaren 24. atalean hala eskatzen bada, lizitatzaileek kontratuaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duten adierazi beharko dute eskaintzan, zenbatekoa adieraziz, eta azpikontratistaren izena edo enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera definitua. Kasu horretan, azpikontratuak ez badatoz bat eskaintzan adierazitakoarekin, ezin izango dira egin, jakinarazpena egin eta hogei eguneko epean eta aurreko paragrafoan adierazitako justifikazioak eman ondoren, VISESAk aurretik berariazko baimena ematen badu edo justifikatutako larrialdi-egoera bada salbu, VISESAk epe horretan aurka dagoela jakinarazten duenean izan ezik.

SPKLren 217.1 artikuluaren arabera, kontratistak kontratazio-organoari helaraziko dio, organoak hala eskatuta, kontratuan parte hartuko duten azpikontratista edo hornitzaileen zerrenda xehatua, haien parte-hartzea perfekzionatzen denean, eta horrekin batera helaraziko dizkio ordainketa-epearekin lotura zuzena duten azpikontratazioaren edo horniduraren baldintzak. Halaber, eta VISESAk eskatuta, prestazioa amaitu ondoren, ordainketa-egiaztagiria aurkeztu beharko dute, SPKLren 216. artikuluan eta merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean legez ezarritako ordainketa-epeen barruan, aplikagarria den guztietan. Betebehar horiek kontratua gauzatzeko oinarrizko baldintzak izango dira, eta horiek ez betetzea araubide juridikoan aurreikusitako ondorioak izateaz gain, agiri honen I. eranskinaren 26. atalean aurreikusitako zigorrak ezartzea ahalbidetzen du.

SPKLren 217.2. artikuluaren 1. atalean aurreikusitako ez-betetzeengatiko egiaztapenak eta zehapenak ezartzeko jarduketak nahitaezkoak izango dira zerbitzu-kontratuetan, baldin eta haien balio zenbatetsia 5 milioi eurotik gorakoa bada eta azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 30 edo gehiago bada, kontratista nagusiarekin kontratuaren arabera zati jakin batzuk egiteko konpromisoa hartu duten azpikontratistei egindako ordainketei dagokienez.

Berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, 216. eta 217. Artikuluetan aurreikusitakoari kalterik egin gabe eta 215. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen badira, kontratazio-organoak klausula administratiboen agirietan aurreikusi dezake azpikontratistei ordainketa zuzenak egitea. Kontratu honetan agiriaren I. eranskinaren 22. atalean zehaztuko da.

Azpikontratistari egindako ordainketak kontratista nagusiaren kontura egiten direla aurreikusiko da, VISESAri dagokionez, obra-ziurtagirien kontu oneko ordainketen izaera bera mantenduz.

Inolaz ere ezingo zaio VISESAri egotzi kontratista nagusiarekin ados es egoteagatik azpikontratistak aurkeztutako fakturari dagokionez ordainketaren atzerapena.

III. KAPITULUA. Kontratua gauzatzea

Lehenengo atala. Arriskua eta mentura

39. klausula Arriskua eta mentura

Kontratuaren gauzatzea kontratistaren arrisku eta menturara egingo da, SPKLren 197. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bigarren atala. Kontratua betetzea

40. klausula Lan-programa

Lan-programa aurkezteko betebeharra agiri honi atxikitako I. eranskinaren 9. atalean zehaztuko da.

Kontratistak, I. eranskinaren 9. atalean adierazitako epean, kontratua formalizatu zenetik kontatzen hasita, programa dagokion kontratazio-organoak onartu beharko du, gauzatzeko. Bertan zerbitzuaren edukia aurrera eramateko lanak zehaztu behar dira, eta hala badagokio, lan bakoitzari dagozkion epe partzialak proposatu beharko ditu. Horretarako, denbora unitatean astea eta hilabetea izango dira, baldintza teknikoen agirian kontrakoa adierazten bada salbu. Lan-programak kontratuan finkatutako data edo entrega-epe guztiak errespetatuko ditu, eta agirian eskatutako datu guztiak izango ditu.

Kontratazio-organoak horri buruzko ebazpena emango du, eta aurkeztutako lan-programari ezarri ahal izango dizkio kontratua betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak, zabaltzeak eta zehaztasun-maila.

Zerbitzuak garatzeko adjudikaziodunak erakunde edo organismo publikoekin harremanak sortu behar badira, kontratazio-organoaren aurretiazko baimena izan beharko du.

Kontratuaren baldintzak aldatzen diren bakoitzean kontratistako programa eguneratzera behartuta dago.

41. klausula Lan akastunak edo gaizki egikarituak

Adjudikazioduna kontratatutako zerbitzuak behar bezala gauzatzearen erantzulea izango da jaso arte, bai eta zerbitzu horietan egon daitezkeen akatsena ere; nolanahi ere, VISESAren ordezkariek zerbitzu horiek aztertu edo aintzatetsi egin beharko dituzte, egiten ari diren bitartean, edo egiaztapen, balorazio edo ziurtagiri partzialetan onartu.

Berari egotz dakioken kausengatik kontratistak kontratuan zehaztutako prestazioak zati batean bete ez baditu VISESAk, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua amaitu dezake edo agiri honen I. eranskinaren 26. atalean zehaztutako egoeratarako zigorrak jarri ahalko ditu.

Hirugarren atala. Obra proiektuak egiteko kontratuetan akatsak konpontzea, kalte-ordainak eta erantzukizunak.

42. klausula Akatsak konpontzea eta hutsuneak zuzentzea

SPKLren 314. artikuluan xedatutakoaren arabera, obra proiektu bat osorik egitea xede duten zerbitzu-kontratuetan, kontratazio-organoak kontratistari eskatuko dio egotz dakizkiokeen akatsak, gabezia teknikoak, akats materialak, omisioak eta lege- edo erregelamendu-xedapenen arau-hausteak zuzentzeko. Horretarako, dagokion epea emango zaio, gehienez ere bi hilabetekoa.

Epea amaitu ondoren hutsuneak ez badira zuzendu VISESAk, egoera kontuan hartuta, kontratua amaitu dezake edo kontratistari epe berri bat eman.

Kontratua amaitzea aukeratzen bada, bermea konfiskatuko da eta kontratistak kontratuaren prezioaren % 25a ordaindu beharko dio, kalte-ordain gisa.

Epe berri bat ematen bazaio, hilabetekoa izango da, luzapenik egiteko aukerarik gabe; kontratistak kontratuaren prezioaren % 25eko zigorra ordaindu beharko du.

Berriro ere ez-betetzeren bat gertatzen bada, kontratua amaituko da eta kontratistak VISESAri adostutako prezioa ordaindu beharko dio eta bermea galduko du.

Kontratistak proiektua egiteari uko egiten badio, azken epea eman aurreko edozein unean, kontratuaren erdia ordaindu beharko du eta bermea galduko du.

43. klausula Obrak gauzatzean izandako desbideratzeengatiko kalte-ordainak eta proiektuaren akatsengatiko edo okerrengatiko erantzukizuna

Kontratista aholkulariari egotz dakizkiokeen akats edo omisioen ondorioz, proiektuan aurreikusitako obra gauzatzeko aurrekontua obraren benetako kostutik % 20 baino gehiago (goitik zein behetik) desbideratzen bada, proiektua egiteko kontratuaren prezioa murriztu egingo da, kalte-ordain gisa, desbideratze-ehunekoaren arabera, haren erdiaren baliokide den gehienekora arte. Kalte-ordainen baremoa SPKLren 315.1 artikuluan aurreikusitako izango da.

Kontratistak kalte-ordainak dagokion ebazpena jakinarazi eta gehienez ere hilabeteko epean ordaindu beharko du. Ebazpena espedientea izapidetu ondoren eta interesdunari entzun ondoren izapidetuko da.

Aurreko atalean, SPKLren 314. artikuluan eta SPKLren 233.4 artikuluaren bigarren paragrafoan aurreikusitakoa alde batera utzita, obrak gauzatzean edo ustiatzean kontratazio-organoari edo hirugarrenei eragindako kalte-galeren erantzukizuna izango du kontratistak, bai proiektuaren akats eta urritasun teknikoengatik, bai proiektuari egotz dakizkiokeen akats materialengatik, omisioengatik eta lege- edo erregelamendu-manuen arau-hausteengatik sortutakoengatik.

Kontratistari egotz dakiokeen arduratik eratorritako kalte-ordainak eragindako kalte-galeren zenbatekoaren % 50 izango da, gehienez ere proiekturako adostutako prezioa bost aldiz izatera arte eta SPKLren 315.2 artikuluan zehaztutako terminoetan eskatuko da.

Laugarren atala. Epea betetzea eta atzerapenagatiko zigorrak

44. klausula Epea betetzea eta kontratuaren betebeharrak ez betetzeagatiko zigorrak

Kontratista behartuta dago kontratua betetzera adostutako epe totalaren barruan, baina hori hurrenez hurren gauzatzeko epe partzialetan.

Zerbitzuak atzeratzen badira, eta, betiere, atzerapen hori ezin bazaio kontratistari egotzi, eta kontratistak, hasierako gauzatzeko epea luzatuz gero, bere konpromisoak betetzea eskaintzen badu, kontratazio-organoak emango dio, eta, gutxienez, galdutako denboraren bestekoa izango da epea, non eta kontratistak ez duen beste epe laburrago bat eskatzen, SPKLren 195.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta HAKLEOren 100. artikuluaren arabera arautuko dira betekizunak eta izapideak. Kontratuaren arduradunak txosten bat igorriko du atzerapena kontratistari egotz dakioken arrazoiengatik den zehazteko.

SPKLren 29.3 artikuluan zehaztutakoari jarraituz, zerbitzua ematean atzerapena enpresaburuaren aldetik gertatzen bada, kontratazio-organoak gauzatzeko epea luzatu ahalko du, horrek dakarren zigorrari kalterik egin gabe, eta aplikagarria izango da SPKLren 192. artikuluetan eta hurrengoan xedatutakoa.

Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutu egin bada epe osoa edo zati bat betetzeari dagokionez, eta, horretarako, agiri honen I. eranskinaren 8. atala bete beharko da, eta VISESAk, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua suntsiaraztea edo agiri honen **I. eranskinaren 26. atalean** aipatzen diren zigorrak ezartzea erabaki dezake.

Atzerapenagatiko zigorren kontratuaren % 5eko multiplora iristen diren bakoitzean, BEZik gabe, kontratazio-organoak kontratua amaitzeko erabakia hartzeko gaitasuna izango du, edo gauzatzen jarraitzea adosteko, zigor berriak ezarriz. Azkeneko kasuan kontratazio-organoak kontratua amaitzeko beharrezkotzat jotzen duen epea ezarriko du.

Halaber, VISESAk prerrogatiba berberak izango ditu epe partzialak betetzen berandutzeak epe osoa betetzea ezinezkoa dela arrazoiz pentsarazten duenean.

VISESAk, kontratistaren aldetik kontratuan zehaztutako epe partzialak betetzen ez baditu, kontratua amaitu dezake edo agiri honen I. eranskinaren 26. atalean zehaztutako zigorrak aplikatzea aukeratu dezake.

Kontratua partzialki betetzen ez bada, edo gaizki betetzen bada, edo kontratua gauzatzen berandutzen bada, eta zigorrik aurreikusita ez badago, edo, aurreikusita egon arren, VISESAri eragindako kalteak estaltzen ez baditu, VISESAk kalte-galeren ordaina eskatuko dio kontratistari.

VISESAk, bai (i) kontratua gauzatzeko behar beste baliabide pertsonal eta material jartzeko edo atxikitzeko konpromisoa betetzen ez badu, bai (ii) kontratua gauzatzeko baldintza bereziak betetzen ez baditu, (a) kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, edo (b) betetzea exijitu, eta kontratistari betebehar hori hitzartutako baldintzetan eta mugetan egiteko betebeharraz gain, betebeharra baloratzen den zenbateko ekonomikoaren % 20ren pareko zigorra

ezarri ahal izango dio, kuantifikagarria izatekotan, edo, kuantifikagarria ez bada, kontratuaren zenbatekoaren % 10eko zigorra.

Bosgarren atala. Kontratua aldatzea eta amaitzea

45. klausula Kontratua aldatzea

SPKLren bigarren liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 3. atalaren 4. azpiatalean aurreikusitako kasuetan eta moduan soilik aldatu ahal izango dira kontratuak, eta SPKLren 191. artikuluan araututako prozeduraren arabera, SPKLren 207. artikuluan aurreikusitako berezitasunekin.

Kontratazio-organoek egindako kontratuak indarraldian aldatzeko SPKLren 203. artikuluaren 2. atalean zehaztutako baldintzak gertatu behar dira.

Baldintza administratibo partikularren agirian aurreikusitako baldintzetan kontratua aldatu daiteke agiriaren **I. eranskinaren 24. atalean** zehaztu denean, SPKLren 204. artikuluan zehaztutako moduan eta edukiarekin.

Aldaketa horiek hasierako ehunekoaren gehieneko zein ehunekoari eragin diezaioketen agiriaren **I. eranskinaren 24. atalean** zehaztuko da.

Kontratazio-organoak adostutako aldaketa derrigorrezkoak izango dira kontratistentzako SPKLren 206. artikuluan zehaztutako terminoetan, eta SPKLren 153. artikuluaren arabera formalizatu behar dira, eta aipatutako legearen 207. eta 63. Legearen artikuluetan ezarritakoaren arabera argitaratu behar dira.

Araubideari dagokionez, SPKLren bigarren liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 3. atalaren 4. azpiatalean, SPKLren 191. eta 203. artikuluetan eta erregelamendu bidez xedatutakoari jarraituko zaio.

SPKLren 309. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, prezioa gauzatze-unitateen bidez zehazten den kasuetan, ez dira aldaketatzat hartuko, baldin eta administrazio klausula partikularren agirian hala ezarri bada, prestazioa behar bezala gauzatu bitartean kontratuan aurreikusitakoez gain benetan gauzatutako unitateen kopuruan soilik gertatzen diren aldaketak; izan ere, horiek likidazioan jaso ahal izango dira, betiere kontratuaren prezioa % 10etik gora handitzen ez badute.

Kontratu honen kasuan unitateen kopurua kontratuaren prezioaren % 10eraino igotzeko aukera agiriaren I. eranskinaren 5. atalean zehazten dira.

46. klausula Kontratua amaitzea

VISESAk adostu dezaken kontratuaren gauzatzea amaitzea. Halaber, kontratua amaitu daiteke SPKLren 198.5 artikuluan adierazitako inguruabarra gertatzen bada. Kontratua amaitzeko ondoreetarako SPKLren 208. artikuluan zehaztutakoa jarraituko da, bai eta HAKLEOren manu bateragarrietan zehaztutakoa.

SPKLren 208. artikuluaren arabera, VISESAk kontratua etetea erabakitzen badu edo etetea SPKLren 198.5 artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz gertatzen bada, VISESAk kontratistari ordainduko dizkio benetan jasandako kalte-galerak, agiriaren **I. eranskinaren 25. atalean** ezarritako arauei jarraikiz.

Adjudikaziodunak kontratua betetzea amaitzea eragin dezake, (4) hilabetetik gorako ordainketa-atzerapena gertatzen bada.

Horretarako, egoera VISESAri jakinarazi beharko dio hilabete (1)eko aurrerapenarekin, amaitzeagatik eratorri daitezkeen eskubideak antzemateko.

Klausulan aurreikusitako bi egoeretako edozeinetan alderdiek akta bat egingo dute, eta bertan adieraziko dira (i) kontratua amaitzea eragin duten inguruabarrak eta (ii) egiteko egoera kontratua gauzatzean.

IV. KAPITULUA. Kontratua azkentzea.

Lehenengo atala. Kontratua suntsiaraztea

47. klausula Kontratua suntsiaraztzea

47.1 Kontratua suntsitzeko kausak:

- VISESArekin kontratatzeko baldintzak galtzea.

- Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabeziaren deklarazioa.

- VISESA eta adjudikazioduna ados jartzea.

- Adjudikaziodunak kontratuaren xede diren zerbitzuak betetzeko gauzatzeko epeetan atzeratzea. Nolanahi ere, agirian edo kontratuan ezarritako lan-planarekiko justifikaziorik gabeko atzerapena, edozein jardueratan, kontratuaren hasierako iraupen-epearen herena baino epe luzeagoan, balizko luzapenak barne.

- VISESAk ordaintzean atzeratzea, (4) hilabetez baino gehiagoz.

- Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

- Kontratistak behin betiko bermea eguneratzeko betebeharra ez betetzea.

- Kontratua ez formalizatzea.

- VISESAren zuzendaritza eta ikuskaritza gaitasunak oztopatzea.

- Kontratua hogei (20) egun baino gehiagoz etetea, VISESAri egotz dakiokeen arrazoiren batengatik hasi gabe.

- Kontratuan aldaketak egitea, nahiz eta aldaketa horiek elkarren segidakoak izan, baldin eta, banaka edo batera hartuta, kontratuaren prezioaren aldaketak kontratuaren hasierako prezioaren % 20tik gorakoak badira, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kontuan hartu gabe, edo hasierako proiektua funtsean aldatzen badute.

- Adjudikaziodunak ez betetzea isilpean gorde behar dituen datuak edo aurrekariak, publikoak edo nabariak izan gabe kontratuaren xedearekin lotuta badaude eta kontratua dela-eta ezagutzen baditu.

- Kontratua gauzatu bitartean kontratistak bertan parte hartzen duten langileen soldatak ez ordaintzea edo indarrean dauden hitzarmenen baldintzak ez betetzea kontratua egiten den bitartean.

- Oinarrizko kontratu-betebeharrak ez betetzea, agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian hala izendatuta badaude.

47.2 Kode Zibilaren 1.124 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratua suntsiarazteko arrazoiren batengatik kaltetuak bi aukera izango ditu: kontratua betetzea edo suntsiaraztea eskatzea..

Betetzea eskatu arren suntsiaraztea eskatu dezake, betetzea ezinezkoa denean.

47.3 Kontratistaren ez-betetzeagatik amaitzen denean, kontratistak VISESAri kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio eragindako kalte-galerengatik, kontratua suntsiaraztea erreklamatzeko prokuradorearen eta abokatu-defentsaren gastuak barne.

47.4 VISESAren ez-betetzeagatik amaitzen denean, enpresak kontratistari kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio eragindako kalte-galerengatik, kontratua suntsiaraztea erreklamatzeko prokuradorearen eta abokatu-defentsaren gastuak barne.

Bigarren atala. Zerbitzuak ematea

48. artikulua. Aurkezteko modua.

Adjudikaziodunak kontratuaren xede den eta Baldintza Tekniko Partikularren Agirian zehazten lanaren ale osoak aurkeztu behar ditu, agirian zehaztutako dokumentu eta planoen formatua eta tamainarekin.

49. artikulua. Zerbitzuak ematea eta lanak entregatzea.

Kontratistak lanaren xedea araututako epearen barruan egin beharko du, eta kontratuaren arduradunak aurkeztutako dokumentazioaren azterketa egin beharko du, eta preskripzio teknikoak bete direla uste badu, jasotzea proposatuko du.

Kontratuaren preskripzio teknikoak bete ez direla uste badu, kontratistari idatziz emango dizkio hautemandako faltak edo akatsak konpontzeko jarraibide zehatzak, eta idazki horretan zehaztuko dira epea eta dagozkion oharrak.

Kontratuaren arduradunak egindako oharrei buruzko erreklamaziorik balego, kontratuaren arduradunak, txostenarekin batera kontratazio-organoari helaraziko dizkio, eta organoak ebatziko du.

Kontratistak ez badu idatziz erreklamatzen, ulertuko da horiek ados dagoela eta hautemandako akatsak zuzentzera edo konpontzera behartuta dago.

49.1 Enpresa kontratistaren langileei dagokienez:

Zerbitzua ematera atxikitako langileak enpresa kontratistaren mende soilik egongo dira, eta enpresa horrek bakarrik izango ditu enplegatzaile izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak. Ondore horretarako, enpresa kontratistak honako betebehar hauek izango ditu:

49.1.1.- Enpresa kontratistari soilik dagokio kontratua gauzatzeko taldearen parte izango diren langileak hautatzea.

49.1.2.- Enpresa kontratistak ahalegina egingo du lantaldea egonkorra izan dadin, eta osaeran egiten diren aldaketak unean unekoak izan daitezen eta justifikatutako arrazoiak egon daitezen, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko, eta erakunde kontratatzaileari horren berri emango dio uneoro.

49.1.3.- Enpresa kontratistak zuzendaritza boterea ezarriko du modu erreal, eraginkor eta jarraian, kontratua gauzatzeaz arduratzen den lan-taldearen langileen gainean. Bereziki, bere gain hartuko ditu soldatak negoziatu eta ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, baja edo absentzia kasuetan langileak ordezkatzea, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne, hala dagokionean, laneko arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina-ahala erabiltzea, eta enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak.

49.1.4.- Enpresa kontratistak bereziki zainduko du kontratua bete behar duten langileek beren jarduera agirietan kontratuaren xede gisa mugatutako jarduerari dagokionez betetzen dituzten funtzioetan muga gainditu gabe garatzen dutela.

49.1.5.- Enpresa kontratistak langileen plantillatik gutxienez pertsona koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du, eta honako betebehar hauek izango ditu:

a) Enpresa kontratistaren solaskide gisa jardutea, "erakunde kontratatzailearen" eta kontratuari atxikitako lantaldeko kideen arteko komunikazioa bideratuz, batetik, enpresa kontratistaren eta, bestetik, erakunde kontratatzailearen arteko komunikazioa bideratuz, kontratua gauzatzearen ondoriozko gai guztietan.
b) Lana kontratua betearazteaz arduratzen diren langileen artean banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea.
c) Lantaldea osatzen duten langileek agindutako eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea eta langile horiek lanpostura joaten direla kontrolatzea.
d) Kontratuaren gauzatzeari atxikitako langileen oporrak antolatzea; horretarako kontratista "erakunde kontratatzailearekin" koordinatu beharko da, zerbitzuaren funtzionamendu orokorra ez eragiteko.
e) Kontratuaren betearazpenari atxikitako lantaldearen osaeran izandako aldaketen (noizbehinkakoak edo iraunkorrak) berri ematea erakunde kontratatzaileari.

Enpresa adjudikaziodunak klausularen ondorioz bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz VISESA enpresa kontratistarekin solidarioki zenbatekoak ordaintzera kondenatzen badute, ordaindutako zenbatekoa enpresa kontratistari jasanaraziko zaio, eta, horretarako, VISESAk egoki eta komenigarri den edozein ekintza administratibo edo judizial egiteko eskubidea izango du, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

49.2. Kontratistaren betebeharrak lan-arloan, gizarte-segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan: enpresa kontratistak lan-arloan, gizarte-segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak nahitaez bete behar ditu, eta, bereziki:

49.2.1.- Garatu beharreko prestazioa lan-ordenantza edo hitzarmen kolektiboaren araberakoak badira, kontratistak dagokion lan-ordenantza edo hitzarmen kolektiboaren xedapenak bete beharko ditu.

49.2.2.- Enpresa kontratistak langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu.

49.2.3.- Era berean, indarrean dagoen araudiak ezarritako laneko arriskuen betebeharrak beteko ditu, eta kontratatutako jarduera hasi aurretik honako betebehar hauek betetzen dituela akreditatu beharko du:

a) Dagokion araudiaren prebentziozko antolaketa modalitatea hartzea.
b) Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean sartzea, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren araberako laneko arriskuen prebentziorako plan bat ezarri eta aplikatuz. Eskakizun hori akreditatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEren Segurtasun eta Osasun Sistemei buruzko Jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita edukitzeagatik, betiere sistema horrek eskatutako neurriak betetzen direla ebaluatzen eta egiaztatzen badu. Betebehar hori betetzen dela beste froga bitarteko egokien bidez akreditatu daiteke.
c) Arriskuen ebaluazioa eta dagokion jarduera prebentiboa planifikatzea kontratatutako jarduerari dagokio.
d) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen V. kapituluan aurreikusitako Kontsulta eta Parte-hartzea nola egin den arautzen duen idatzizko prozedura bat izatea edo, hala badagokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak.
e) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen direla kontrolatzeko prozedura edukitzea, eta, hala badagokio, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko aurreikusitako diziplina-neurriak hartzea.
f) Arriskuen ebaluazioaren lotutako baliabide prebentiboen presentzia behar duten laneko postuen edo jardueren zerrenda izatea.
g) Kontratua gauzatzen parte hartzen duten langile guztiek, enpresakoek zein kanpokoek, sartzerakoan arrisku espezifikoei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa jaso izana, bai eta beren jarduerari eragiten dioten arriskuei buruz behar duten prestakuntza jaso izana ere (31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak, 32/2006 Legea eta 1109/2007 Errege Dekretua), Planaren prozeduraren arabera. Zehazki NEBen erabilerari buruzko dagokion informazioa eman dela.
h) Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduen entregaren egiaztagiria izatea.
i) Lanen eta langileen kontratazioaren garapena planifikatzea, langileen atseden tarteak errespetatzeko eta aparteko orduak ohiz kanpokoak izateko.

50. klausula Jasotzea eta likidatzea.

Kontratua bete dela ulertuko da kontratistak kontratuaren baldintzen arabera eta VISESAren gogobetetzerako xedea burutzen duenean.

Aurreko klausulan aipatutako izapideak bete ondoren, eta HAKLEOren 204.3 artikuluan aurreikusitakoaren ondoreetarako, kontratuaren xedea emateak beharrezko baldintzak betetzen dituela uste bada, jasoko da.

VISESAk harrera- edo adostasun-egintza formal eta positiboa egingo du kontratuaren xedea entregatu edo gauzatu eta hurrengo hilabetearen barruan.

Bermealdia amaitu arte, adjudikazioduna kontratatutako zerbitzuak behar bezala gauzatzearen erantzulea izango da jaso arte, bai eta zerbitzu horietan egon daitezkeen akatsena ere; nolanahi ere, VISESAren ordezkariek zerbitzu horiek aztertu edo aintzatetsi egin beharko dituzte, egiten ari diren bitartean, edo egiaztapen, balorazio edo ziurtagiri partzialetan onartu.

Kontratistaren prestazioa ez baditu jasotzeko beharrezko baldintzak biltzen, idatziz emango dira beharrezko jarraibideak hautemandako akatsak zuzentzeko eta betebeharrak finkatutako epean zehaztuko, eta ez da jasoko jarraibide horiek bete arte.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin kontratistari egotz dakiokeen bizio edo akatsengatik, kontratazio-organoak atzera bota dezake eta ez du ordaintzeko betebeharrik izango; halaber, prezioa berreskuratu dezake.

Jasotze edo adostasun datatik zenbatzen hasita eta hogeita hamar eguneko epean kontratuaren izaerak hala eskatzen duenean erabaki beharko da kontratuaren likidazioa, eta kontratistari jakinarazi beharko zaio, hala badagokio, likidazio horren ondoriozko saldoa. Hala ere, faktura jasotzea egin eta gero jasotzen bada, hogeita hamar eguneko epe hori kontratistak dagokion erregistroan faktura elektronikoaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan behar bezala aurkezten duenetik zenbatuko da.

Likidazio saldoaren ordainketa atzerapena badago, kontratistak atzerapen-interesak eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoaren arabera.

51. klausula Lanen jabetza.

Kontratua gauzatzean egindako azterlan eta dokumentu guztiak VISESAren jabetzakoak izango dira, eta osorik edo zati batean kopiatu, argitaratu eta zabaldu ahal izango ditu, eta lanen jabe adjudikaziodunak horren kontra egiteko aukerarik ez du izango.

Adjudikaziodunak ezin izango du kontratua gauzatzeko egindako azterlan eta dokumentuen erabilera edo dibulgaziorik egin, bai modu osoan edo partzialean, zuzenean edo laburbilduz, kontratazio-organoak horretarako baimena berariaz ematen ez badu.

Jabetza intelektual edo industrialeko eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek berekin ekarriko dute eskubide hori VISESAri lagatzea. Nolanahi ere, eta jabetza intelektualeko eskubideen lagapena baztertzen bada ere, SPKLren 3.1 artikuluan aipatzen diren sektore publikoko erakunde, organismo eta erakundeei baimena eman ahal izango zaie dagokion produktua erabiltzeko.

Hirugarren atala. Bermealdia.

52. klausula Bermealdia

Bermealdia jasotze edo adostasun datatik zenbatzen hasiko da eta agiri honen I. eranskinaren 28. atalean adieraziko da.

Bermealdian zehar behin betiko bermea aplikagarriak diren SPKLren 110. artikuluan adierazitako kontzeptuen arabera ezarriko da.

Jasotze partzialik balego, jasotako alderdien bermealdia jasotze partzialen dagokion datatik zenbatzen hasiko da.

Bermealdian zehar egindako lanetan bizioak edo akatsak daudela akreditatzen badu, kontratazio-organoak kontratistari eska dakioke horiek zuzentzea.

Bermealdia amaitu eta VISESAk ez badu formalizatu aurreko ataletan aipatutako eragozpenik edo salaketarik, kontratistak ez du izango inolako erantzukizunik egindako prestazioagatik.

Zerbitzu-kontratua obra-proiektu bat osorik egitea bada eta egiaztatzen bada akatsak, gabezia teknikoak, okerrak edo desbideratzeak daudela, zuzentzeko espedientea ireki ahal izango da, SPKLren 314. eta 315. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Kontratistak eskubidea du kontratatutako prestazioa betetzearen inguruan adierazten diren oharren inguruan ezagutza izatera eta parte hartzera.

53. klausula Aseguruak

SPKLren 44.1 artikuluan jasota ez dauden kontratuei buruz emandako egintzen aurka Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako errekurtso arruntak aurkeztu ahal izango dira.

Errekurtsoen ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa soilik jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Kontratuen prestaketari, adjudikazioari eta aldaketei dagokienez, azken horien aurkaratzea SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritzen bada, eta ulertzen bada aldaketa horrek VISESAk egindako kontratuen adjudikazio berri baten xede izan behar zuela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena, aipatutako errekurtso berezia ebatzi ondoren, eta hura aurkeztea nahitaezkoa izango da aipatutako aginduaren aurrean aurkaratu aurreko izapide gisa. Kontratuaren gauzatzea eta ondoreetarako jurisdikzio zibila ezagutu beharko du.

Adjudikaziodunak berariaz egiten dio uko bere bizilekuko foruari, eta sor daitezkeen gorabeherak eta erreklamazioak ebazteko eskudunak diren Vitoria-Gasteizko epaitegi eta auzitegietara jotzen du.

II. ERANSKINA. EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRAREN EREDUA

Europako Batzordeak eskaintzen duen EKAB doako lineako zerbitzu elektronikoari esker, dokumentu hori bide elektronikoz bete daiteke Interneteko helbide honetan: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es, jarraian adierazten denaren arabera:

- EKAB zerbitzu elektronikoarekin, kontratazio-organoak EKAB eredu bat sortuko du prozedura horretarako, eta lizitatzaileen eskura jarriko da Kontratatzailearen Profilean, XML formatu normalizatuan, deialdiko gainerako dokumentuekin batera (dokumentazio osagarri gisa).

- Lizitatzaileak bere ordenagailuan biltegiratu beharko du eredu hori, XMLn, eta, ondoren, EKAB zerbitzu elektronikora sartu; han inportatu beharko du, behar diren datuak bete, inprimatu, sinatu eta EKAB aurkeztu beharko du, lizitazioko gainerako dokumentuekin batera.

III. ERANSKINA. ABAL-EREDUKO KONTRATAZIO PROZEDURETAKO BERMEAREN EREDUA

…….....
erakundea (kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), IFZ:……..…helbidea: ….....……(jakinarazpen eta errekerimenduetarako) …….....-n la .....…….…… kalean/plazan/etorbidean, PK:……..… eta bere izenean (ahaldunen izena eta abizenak) ..... …….....…… …… ekimen honetan behartzeko botere nahikoak ditu,

ABALA EMATEN DIO
Honi: ….....……(abala jasotzen duenaren izena eta abizenak edo sozietate-izena) IFZ:…….....….....honako hauek xedatutakoaren arabera (berme honen eraketa ezartzen duten artikuluak eta arauak)…….....……
…….....….....…….....……
……..… honako betebehar hauei erantzuteko: (zehaztu kontratuaren xedea eta bermea jasotzen duen pertsonak jasotako betebeharra)…….....…… ……..... VISESAren aurrean …….....….....…… ….....eurotan: (idatziz)…….....…….…….....(zifra) …….....…….....……....

Abala ematen duen erakundeak bere erantzukizunpean adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 56.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela. Abal hau solidarioki ematen da derrigorrezko nagusiari dagokionez, eskusio-onurari berariaz uko eginez eta VISESAren lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoarekin, kontratazio-araudian, hura garatzeko arauetan eta Erregelamenduan jasotako arauetan aurreikusitakoaren arabera.

Abala indarrean egongo da VISESAk ezereztea baimentzen ez duen bitartean, eta dataren aurreko egunean Abalen Erregistro Berezian inskribatu da, zenbakia:.....

……..……..…….……(tokia eta data)
……(erakundearen sozietate-izena)
……..…… (ahaldunen sinadura)

Kontratista adjudikaziodunak gordailututako behin betiko bermearen zenbatekoaren datuak dagokion fitxategian sartu eta tratatuko dira. Fitxategi horren xedea da "kontratu-prozedurak homogeneizatzea, arintzea eta normalizatzea, jarduteko irizpideak bateratzea eta informazioa partekatzeko aukera ematea". Hala, datuak ezingo zaizkie hirugarrenei laga, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11. artikuluan jasotako kasuetan izan ezik. Fitxategiaren organo arduraduna VISESAren Zuzendaritza Nagusia da (Gamarrako Atea kalea 1A-2. solairua – Vitoria-Gasteiz 01013), eta interesdunak haren aurrean baliatu ahalko du datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubidea; horren berri ematen da aipatutako 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua betez.

IV. ERANSKINA. KONTRATAZIO PROZEDURETARAKO BERME EREDUA, KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRIAREN EREDUA.

Ziurtagiri zenbakia……..
(1)……(aurrerantzean, aseguratzailea), helbidea: ……, ……kalea, eta IFZ:……..…… (2) ……-k ordezkatzen du, eta ekintzara behartzeko botere nahikoa du,

ASEGURATZEN DU
(3) ……..... (IFK:……), aseguru-hartzaile gisa, VISESAren aurrean (aurrerantzean aseguratua), (4)…….. euroko zenbatekora arte, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta kontratua arautzen duen administrazio klausula partikularren agirian ezarritako moduan eta baldintzetan (5) …..……...….....…….....berme kontzeptuan (6)…… aseguratuaren aurrean aurrez aipatutako arauen eta gainerako administrazio baldintzen arabera sor daitezkeen betebeharrei, zigorrei eta gainerako gastuei erantzuteko.

Aseguratuak bere erantzukizunpean adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 57.1 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela.

Prima ez ordaintzeak, bakarra, lehenengoa edo hurrengoak izan, ez dio aseguratzaileari kontratua suntsiarazteko eskubiderik emango, eta ez da kontratua azkenduko, aseguratzailearen estaldura ez da etengo, ezta aseguratzailea bere betebeharretik aske geratuko ere, aseguratzaileak bermea ordaindu behar badu.

Aseguratzaileak ezin izango dizkio aseguratuari ezarri aseguru-hartzailearen aurka legozkiokeen salbuespenak.

Aseguratzaileak bere gain hartzen du VISESAk lehen aldiz eskatzean aseguratuari kalte-ordaina ordaintzeko konpromisoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoaren arabera.

Kauzio-aseguru hau indarrean egongo da VISESAk ezerezteko edo itzultzeko baimena eman arte, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta legeria osagarrian ezarritakoaren arabera.

…….(e)n, ……(e)ko……..ren …….(e)(a)n
Sinadura:
Aseguratzailea:

EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK
(1) Aseguru-erakundearen sozietate-izen osoa adieraziko da.
(2) Ahaldunaren edo ahaldunen izen-abizenak.
(3) Aseguratutako pertsonaren izena.
(4) Asegurua eratzen duen zenbatekoa, letraz.
(5) Indibidualki identifikatzea, modu nahikoan (izaera, mota, etab.) kauzioa ematen duen kontratua.
(6) Berme mota: behin behinekoa, behin betikoa, etab.

Kontratista adjudikaziodunak gordailututako behin betiko bermearen zenbatekoaren datuak dagokion fitxategian sartu eta tratatuko dira. Fitxategi horren xedea da "kontratu-prozedurak homogeneizatzea, arintzea eta normalizatzea, jarduteko irizpideak bateratzea eta informazioa partekatzeko aukera ematea". Hala, datuak ezingo zaizkie hirugarrenei laga, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11. artikuluan jasotako kasuetan izan ezik.

Fitxategiaren organo arduraduna VISESAren Zuzendaritza Nagusia da (Gamarrako Atea kalea 1A-2. solairua – Vitoria-Gasteiz 01013), eta interesdunak haren aurrean baliatu ahalko du datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubidea; horren berri ematen da aipatutako 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua betez.

V. ERANSKINA.- ZIFRA EDO EHUNEKOTAN BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ESKAINTZA-EREDUA

..... jaunak/andreak, (NAN: .....), bere izenean edo ordezkatzen duen enpresaren izenean (....., IFZ: ..... eta zerga-egoitza: .....…… ……, ...kalea: .....zenbakia: .....) honako hau adjudikatzeko eskatzen diren babesari eta lan-baldintzei buruzko baldintza, eskakizun eta betebeharren berri izan du: ORTUELLAKO SR-2 PEÑOTA sektoreko 1. partzelan 90 etxebizitza sozial sustatzeko (B-132) aholkularitzarako, proiektua idazteko eta obrak zuzendu eta ikuskatzeko kontratua. Halaber, horiek egikaritzeko konpromisoa hartzen du, aipatutako baldintza, eskakizun eta betebeharrak zorrozki betez, honako prezio honetan:

EREDUZKO AURREKONTUA	PREZIOA BEZ-IK GABE	BEZ-A	PREZIOA BEZ-A BARNE
519.925 €			

Aipatutako preziotik, % ….. kostu zuzenei dagokie, % …. zeharkakoei eta % …. beste balizko gastu batzuei.

Halaber, funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen diren konpromiso hauek hartzen ditut:

Gainprestazioak:

1. BIM erabilerak hobetzea kontratazio-neurketei dagokienez: ereduan obrak kontratatzeko neurketak sartzea eta BIM eredua sinkronizatzea aurrekontu-software espezifiko batekin. BAI/EZ

2. BIM erabilerak hobetzea obra-plangintzari begira: BIM eredua sinkronizatzea plangintza-software espezifiko batekin, faseen plangintza aldez aurretik ikusi eta doitu ahal izateko arkitektura-, egitura- eta instalazio-diziplinetarako ereduaren bidez. BAI/EZ

3. BIM erabilerak hobetzea topografikoari begira: jasotze topografiko bat gehitzea BIM ingurune batean, 3D eskaneaketaren moduko tresnen erabilerarekin edo teknika fotogrametrikoekin, droneekin, BIM delakora eraman daitekeen puntu-hodei bat sortzeko. BAI/EZ

4. Paseo birtuala “as built” ereduan: entregatu beharreko “as built” ereduan bizitoki edo etxebizitza bakoitzeko paseo birtual bat sartzea. BAI/EZ

5. 6D jasangarritasuneko BIM erabilerak sartzea: eraikinaren energia-jokabidearen, diseinu jasangarriaren eta balio-ingeniaritzaren azterketa eta/edo simulazioa egiteko eredua erabiltzea, horretarako software espezifikoekin sinkronizatuz. BAI/EZ

6. Salmenta osteko arreta: Bermealdiaren eta salmenta osteko fasearen ereduzko epea, 12 hilabetekoa, beste 12 hilabetez luzatzea. BAI/EZ

Berdintasun-irizpideak:

8. Kontratua egikaritzean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutakoa prebenitzeko eta horiei aurre egiteko protokolo bat edo neurri espezifikoak onetsi eta hedatzea: BAI/EZ

9. Kontratua egikaritzean enpresa-hitzarmen kolektibo hau erabili eta aplikatzea: _____. Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako klausula espezifikoak ditu, eta horiek legeak aitortutako eskubideak hedatu eta hobetzen dituzte. BAI/EZ

10. Bizitza pertsonala, lanekoa eta familiarra bateratzeko neurriak izatea eta aplikatzea kontratua egikarituko duen plantillako kideei, BAI / EZ, adibidez:

_____

Hori guztia deialdiaren oinarri diren preskripzio teknikoen agirietan eta administrazio-klausula partikularren agirietan ezarritakoarekin bat. Adierazten du ezagutu eta osorik onartzen duela horien edukia. Eskaintza egiterakoan aintzat hartu dira fiskalitatearen, ingurumena babestearen, genero-berdintasunaren, enplegua babestearen, lan-baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze eta laneratzearen arloan indarrean dauden xedapenetatik eratorritako erantzukizunak, baita desgaitasuna duten pertsona-kopuru edo -ehuneko zehatz bat kontratatzeko betebeharra ere.

Data eta lizitatzailearen sinadura.

Datu pertsonalen babesari dagokionez, ikus 34. klausula.

VII. ERANSKINA. KAUDIMENA KANPOKO BITARTEKOEKIN INTEGRATZEKO KONPROMISO-EREDUA[1]

……..jaun/andrea, NAN zk.:.....…,…….. erakundearen izenean; ……..... izeneko kontratazioan parte hartzeko, ...-k deituta:

ETA

……..jaun/andrea, NAN zk.:..... …….. erakundearen izenean eta ordezkaritzan, IFK: ……

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, konpromiso hauek hartzen dituzte:

- ..... erakundeak ..... erakundearen mesedeetan jartzen dituen kaudimena edo baliabideak honako hauek direla: [2]
-
-
- Kontratua egikaritu bitartean konpromiso honetan deskribatzen diren kaudimena edo baliabideak izango dituztela.

- Deskribatutako kaudimena edo baliabideak izatea ez dagoela inolako baldintzaren edo mugaren mende.

Data
Lizitatzailearen sinadura.
Beste erakundearen sinadura.
DAGOKION KONTRATAZIO-ORGANOARI ZUZENDUTA

[1] Erakunde baten baino gehiagoren kaudimena edo baliabideak erabiliz gero, lizitatzailearen esku kaudimena edo bitartekoak jartzen dituen erakunde bakoitzak aitorpen bat bete beharko du, ereduaren araberakoa.
[2] Kaudimen edo baliabide zehatzak zehaztu behar dira.

VII. ERANSKINA.- BITARTEKOAK ATXIKITZEKO ETA EGIKARITZE-BALDINTZAK BETETZEKO KONPROMISOA

……. jaunak/andreak (egoitza:……, …….. kalea eta NAN: ……..), ……..-ren izenean (bere izenean edo ordezkatzen duen pertsona, erakunde edo enpresaren izenean), (jakinarazpenak jasotzeko helbidea:……, ……..……kalea, KP:……Tel.: …….., helbide elektronikoa: ……. eta IFK: ……)

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

CON-2022-SE-0300 espediente-zenbakiari dagokion kontratua egikaritzeari dagokionez, zeinaren xedea baita ORTUELLAKO SR-2 PEÑOTA sektoreko 1. partzelan 90 etxebizitza sozial sustatzeko (B-132) aholkularitzarako, proiektua idazteko eta obrak zuzendu eta ikuskatzeko kontratua, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

I.- Honako hauek atxikitzea kontratua egikaritzeko:
a) Ekoizpen-antolakuntza propioa.
b) Agirian egikaritze-baldintza berezi gisa finkatutako bitartekoak.
c) Jarraian jasotzen diren giza baliabide eta baliabide materialak, lehenengoen kasuan, prestakuntza eta esperientzia adierazita: (soilik kontratazio-organoak finkatu baditu bete behar da, uste badu beharrezkoa dela kontratura atxiki beharreko baliabide pertsonal edo materialen gutxieneko ezaugarri edo kalifikazioak ezarri behar direla).
- Giza baliabideak:

ERANTZUKIZUNA	IZEN-ABIZENAK	TITULAZIOA	ENPRESA
GUTXIENEKO TALDEA: KAUDIMEN-BALDINTZA			
PROIEKTUGILEA (*)			
OBRA-ZUZENDARIA (*)			
OBRAREN EGIKARITZE-ZUZENDARIA (*)			
BIM ARDURADUNA (*)			
INGURUMENAREN ALDETIK JASANGARRIA DEN ERAIKUNTZAKO ADITUA (*) (**)			
TALDE FAKULTATIBOARI BEGIRA ESKAINITAKO GAINPRESTAZIOAK (HALA BADAGOKIO)			

(*) profesional guztiek deialdi honetan aurreikusitako gutxieneko kaudimen-baldintzak egiaztatu beharko dituzte

(**) Soilik ingurumenaren aldetik jasangarriak diren proiektuak diseinatu eta idazteko jardunbide egokiak modu sistematikoan aplikatzeari buruzko kaudimen teknikoa aditu baten atxikipenarekin egiaztatzen bada. Bestela, ezabatu.

Deskribatutako Talde Teknikoko kideek VISESAREN aurrean adierazten dute Administrazio Agirien eta Agiri Teknikoen edukiaren berri izan dutela, dagozkien lanak aurrera eramateko zehaztutako erantzukizun eta egitekoekin bat.

- Baliabide materialak:

II.- Kontratua egikaritzea, atxikitako langileei begira kontratistari dagozkion betebeharrak betez. Horiek Baldintzen Agiriaren 48. klausulan ezartzen dira.

Eta, jasota gelditu dadin, adierazpen hau sinatzen dut ……-n, …….-(e)ko ……-aren ……(e)(a)n

Sinadura
NAN

VIII. ERANSKINA. SUBROGAZIOAK ERAGITEN DIEN LANGILEEN KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO INFORMAZIOA, LAN-KOSTUEN EBALUAZIO ZEHATZA EGITEKO. INFORMAZIO HAU EMATEN DA SPKLren 130. ARTIKULUAN AURREIKUSITAKOA BETEZ

(Kontratuaren xede den prestazioa ematen ari den enpresak emandako informazioa sartu beharko da eranskin honetan.
Hala ere, informazioaren zati gisa, enpresak subrogatuko diren langileen zerrendak aurkeztu beharko ditu, honako hauek adierazita: Aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa, eta honako zehaztasun hauek: kategoria, kontratu mota, lanaldia, antzinatasun data, kontratuaren epemuga, langile bakoitzaren urteko soldata gordina eta subrogazioak eragiten dituen langile guztiei aplikatu beharreko indarrean dauden hitzarmen guztiak).

IX. ERANSKINA.- PLANTILLAN DESGAITASUNA DUTEN LANGILEAK ETA BERDINTASUN-PLAN BAT IZATERA BEHARTUTA DAUDEN ENPRESEI BURUZKO ADIERAZPENA

…….jaun-andrea (helbidea:…… kalea, NAN zk.: ……..) izenean……..(bere izenean edo ordezkatzen duen pertsona, erakundea edo empresa), jakinarazpenak egiteko helbidea: …… kalean ……..……PK …….telefono-zenbakia ……..helbide elektronikoa……. eta IFK:……, …. zenbakia duen kontratua gauzatzeari dagokionez (helburua da ……. Kontratatzea),

Bere ardurapean ADIERAZTEN DU_

- Ordezten duen enpresak lana ematen diela: (Markatu dagokion laukitxoa)

 50 langile baino gutxiago

 50 langile edo gehiago eta (markatu dagokion laukitxoa)

 Gutxienez, langileen % 2 desgaitasuna duten pertsonak izateko betebeharra betetzen du. Betebehar hori azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez ezartzen da (desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena).

 Apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan aurreikusitako ordezko neurriak betetzen ditu. Errege-dekretu horren bidez, salbuespenez, desgaitasuna duten langileen aldeko erreserba-kuota modu alternatiboan betetzea arautzen da.

- Ordezten duen enpresak: (Markatu dagokion laukitxoa)

 50 langile baino gehiagori ematen die lana eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluko 2. atalean ezarritakoa betetzen du, berdintasun-plana egiteari eta aplikatzeari dagokionez.

 aplikagarria den hitzarmen kolektiboari lotuta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluko 3. atalean ezarritakoa betetzen du, berdintasun-plana egiteari eta aplikatzeari dagokionez

 emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatutakoa betez, enpresa ez dago behartuta berdintasun-plana egitera.

Eta jasota gera dadin adierazpen hau sinatzen dut, ……(e)n, …….(e)ko …….ren …….(e)(a)n.

Sinadura
NANa

IX. ERANSKINA.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

Nik, …… jaunak/andreak, nire izenean edo [operadore ekonomikoa] operadore ekonomikoaren ordezkaritzan (IFZ: ……) [operadore ekonomikoarena], …… zenbakiko espedienteari dagokionez, HAU DEKLARATZEN DUT:

Hauek direla jakinarazpen eta komunikazioak elektronikoki egiteko datuak:

a) Hartzailea: ……..……..……..
b) Abisuetarako helbide elektronikoa: ……..…….
c) Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko aukeratutako hizkuntza:

□ Euskara.
□ Gaztelania.

.....(e)n, 20…(e)ko ……(a)ren ……(e)(a)

Sinadura: